



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko martxoaren 4a

28. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzekoa. Artikuluei aurkezturiko zuzenketak (3. or.).
- Foru Lege proiektua, ezartzen duena nola banatu transferentzia arrunten bidez toki-erakundeek Nafarroako tributueta parte hartzeko duten funtsa. Artikuluei aurkezturiko zuzenketak (5. or.).
- Toki Inbertsioen Plana arautzen duen Foru Lege proiektua. Aurkeztutako zuzenketak (8. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea aldatzen duena. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkeztu dute (19. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzekoa. Proposamena erretiratzea (25. or.).
- 1/2022 Foru Legea, urtarrilaren 26koa, Zenbait Fundazioren Zuzendaritza Organoak arautzen dituen otsailaren 17ko 2/2014 Foru Legea aldatzen duena. Akats zuzenketa (25. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da Nafarroako haur- eta gazte-populazioan suizidioa prebenitzeko estrategia bat ezar dezan. Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztu du (27. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Erromako Estatutuaren aldaketa bultzatzeko politika bat azter dezan, ekozidua nazioarteko delitu gisa aitortzeko bide modura. Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztu du (28. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Parlamentuari 2022ko Irisgarritasun Plan Operatiboa igor diezaion. Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztu du (31. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka borrokatzeko 2021-2026 aldirako Plana Nafarroako Parlamentuari igor diezaion, honek haren gaineko jarrera azal dezan. Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordean izapidetzea (32. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da bertan behera utz dezan Luz Verde alderdi kanabikoa legez kanpo uzteko ekimena. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak onetsia (32. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Emanzipa programaren balizko onuradunen adin-tartea 35era urtera bitartekoa izateraino handitzera legegintzaldia bukatu aitzin. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak onetsia (33. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (33. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Errusiaren eraso militarra salatzen baitu, eta eskatzen baitu berehala buka dadila eta indar militarrek Ukrainatik atera daitezela. Eledunen Batzarrak onetsia (34. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi, baliozkotu eta aldeztu egiten baitu 45. EUCOCOn amai-adierazpena, joan den abenduaren 11n Las Palmas Kanaria Handikoan onetsia. Eledunen Batzarrak onetsia (34. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, kolektibo zaugarriak babeste aldera Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak eginko ekintzei buruzkoa. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egin du (35. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak babes ofizialeko etxebizitzak erosteari buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (36. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren finantzaketa jasangarriko estrategiari buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (36. or.).
- Galdera, Errusiaren eta Ukrainiaren arteko gerrak Nafarroako enpresetan izanen duen eraginari eta haren ondorio ekonomikoei buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (37. or.).
- Galdera, Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzen duen maiatzaren 10eko 8/2021 Foru Legeak ukitzen dituen abeltzaintzako instalazioen eskariei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamari-que jaunak egin du (37. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria hautatzea (38. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzekoa.

ARTIKULUEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Nafarroako Foru Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektuaren artikuluei aurkezturiko zuzenketak. Proiektu hori 2022ko urtarrilaren 26ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehenengo artikulua 1. puntua aldatzeko zuzenketa.

“1. Nafarroako udalerrri eta kontzejuek Foru Komunitateko Ogasun Publikoaren tributu sarreretan parte hartzeko bidea Nafarroako toki erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zuzkidura izanen da”.

Zioak: «Toki erakundeak» esapidea Tokiko Mapari buruzko Legean definiturik dago, eta barnean hartzen ditu eskualdeak. Uste dugu finantzaketa honek ez dituela eskualdeak barnean hartu behar.

2. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehenengo artikulua 2. puntuari bigarren paragrafoa gehitzeko zuzenketa:

“Halaber, Funtsari gehituta, berariazko finantza lerro bat ezarriko da, Hiriburutza Agirien Sistema izenekoa”.

Zioak: Hiriburutza-agiriak legearen barnean toki erakundeak finantzatzeko bide gisa jasotzea. Uste dugu hiriburutza, urte hauetan zehar, finantzaketa sistema ona izan dela, inork ezbaian jarri ez duena, eta lege honek bidea ireki behar lukeela hura Tuterara eta beste hiri batzuetara hedatzeko.

3. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA,
GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOEK,
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
ETA IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA**

Lehenengo artikulua 5. apartatua aldatzeko zuzenketa.

Honako hau dioten tokian:

“5. Kapital-transferentzien Funtsaren zuzkidura 30.000.000 eurokoa izanen da aurrekontu-ekitaldi bakoitzeko”.

Honako hau behar du:

“5. Kapital-transferentzien Funtsaren zuzkidura 30.000.000 eurokoa izanen da 2022ko ekitaldirako.

Hurrengo ekitaldietan, zenbatekoa izanen da aurreko ekitaldiko aurrekontuan Kapital-transferentzien Funts gisa jasotakoa, gehi Nafarroako Foru Komunitateak aurreko ekainean daukan urterik urteko Kontsumoko Prezioen Indizean ezarritako zenbatekoa adinakoa”.

Zioak: Finantzaketa eredu berriak kapital-fun-
tserako urtean 30 milioi euroko zenbateko finkoa
ezartzen du legean, eta, beraz, zenbateko horri
eguneratze-indize bat ezarri behar zaio, kasu
honetan Nafarroako Foru Komunitateak ekainean
duen urterik urteko KPIa, transferentzia arrunten
funtsaren eguneratzearekin bat etor dadin eta toki
erakundeen inbertsioek erosteko ahalmena gal ez
dezaten.

4. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehenengo artikulua 8. puntuko lehenengo
paragrafoa aldatzeko zuzenketa:

“Ekitaldi bakoitzeko Nafarroako aurrekontu oro-
korrei buruzko foru legean jasoko da toki erakun-
deek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten
funtsaren zuzkidurak egiten duen zenbatekoa,
bereizita transferentzia arrunten zatia, kapital-
transferentziana, EJZaren diru-bilketan izandako
galera konpentsatzeko urteroko ekarpena eta
hiriburutza-agiria”.

Zioak: Hiriburutza-agiria zutabe nagusi bat da
eta konpentsazio sistema justu bat, Nafarroako
gizarte osoak edo gizartearen zati batek ekarpenik
egin gabe erabiltzen dituen zerbitzu horien kostua-
ri aurre egiteko. Hala justifikatuta gelditu zen lege
honetan ezarri zenean; talde parlamentario gehie-
nei zuzena iruditu zitzairen, baina orain ezabatu
egin nahi da argudio tekniko eta politikorik gabe.

5. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehenengo artikulua 10. puntuko hirugarren
paragrafoa aldatzeko zuzenketa:

“Atxikitako gerakin horrekin handitu beharko da
hurrengo ekitaldietako kredituen zuzkidura, kreditu
horiekin bete beharko baitira funts horri egotz
dakizkiokeen aurrekontu betebeharrak.

Toki erakundeek Nafarroako tributuetan parte
hartzeko duten funtsaren zuzkidurak gauzatzen
diren aurrekontu kredituak handitu beharko dira,
aurreko paragrafoan definitutako gerakin atxikia-
ren kargura, toki erakundeek eskatutako diru-i-
tzulketetatik datozen sarreraren kargura eta izaera
berekoko beste kreditu batzuen kargura finantzatzuz”.

Zioak: Udalerri eta kontzejuak direnez fun-
tsaren jabe, ez du zentzu handirik gastatzen ez
dena udal finantzaketatik kentzeak.

6. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehenengo artikulua 9. puntua gehitzeko
zuzenketa:

“Hiriburutza-agirien sistemak xede hauetarako
behar diren esleipenak jasoko ditu:

- Jarduera inpropioak garatzea eta kudeatzea.
- Gehiegizko dimentsioa duten zerbitzuak
finantzatzea.
- Eskumenak eskuordetzaz erabiltzeko estal-
dura.

Sistema hori esleituko zaie udalerriei, beren
zentralitateagatik kasu horietakoren batean
badaude eta hori dela-eta finantzaketa gehigarria
eskatzen badiote Transferentzia Arrunten Fun-
tsari”.

Zioak: Hiriburutza-agiria zutabe nagusi bat da
eta konpentsazio sistema justu bat, Nafarroako
gizarte osoak edo gizartearen zati batek ekarpenik
egin gabe erabiltzen dituen zerbitzu horien kostua-
ri aurre egiteko. Hala justifikatuta gelditu zen lege
honetan ezarri zenean; talde parlamentario gehie-
nei zuzena iruditu zitzairen, baina orain ezabatu
egin nahi da argudio tekniko eta politikorik gabe.

7. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Bigarren artikulua beste puntu bat gehitzeko
zuzenketa:

“Edozein foru legetan ezartzen diren salbues-
pen eta hobarietoki tributuak eragiten dietenean,
kompentsazio ekonomikoa eman beharko da,
transferentziak eginez Nafarroako edo Estatuko
aurrekontu orokorren kargura, edo konpentsazio
bideak ezarrituz”.

Zioak: Nafarroako Gobernuak jabetu behar du
mugako egoeran daudela Nafarroako udalerrri eta
kontzejuak, eta kontuan hartu behar du ekonomi-
koki kalte egiten dien erabaki orok nekez gaindi-
tzeko moduko egoeran jarriko lituzkeela.

8. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA,
GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOEK,
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
ETA IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bakarra aldatzeko zuzenketa.

Honako hau dioen tokian:

“Kontuan hartuz toki erakundeen eta Nafarroako Foru Komunitatearen eginkizunen banaketa, unean-unean indarra duena, eta banaketa horren ondoriozko finantzaketa beharrak, handituz edo gutxituz aldatuko dira Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 123. artikuluan jasotako zenbatekoak.

Hiru urteko epean, foru lege honek indarra hartu eta biharamunetik hasita, Nafarroako Gobernuak toki erakundeen eskumen banaketa argitzeko proposamena igorriko du Parlamentura, ber-

tan aurreikusirik, halaber, toki erakundeei esleitzen zaizkien eskumenetarako finantza nahikotasuna bermatzeko beharrezkoak diren baliabideen zuzkidura”.

Honako hau behar du:

“Kontuan hartuz toki erakundeen eta Nafarroako Foru Komunitatearen eginkizunen banaketa, unean-unean indarra duena, eta banaketa horren ondoriozko finantzaketa beharrak, handituz edo gutxituz aldatuko dira Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 123. artikuluan jasotako zenbatekoak.

Hiru urteko gehieneko epean, foru lege honek indarra hartu eta biharamunetik hasita, Nafarroako Gobernuak toki erakundeen eskumen banaketa argitzeko proposamena igorriko du Parlamentura, bertan aurreikusirik, halaber, toki erakundeei esleitzen zaizkien eskumenetarako finantza nahikotasuna bermatzeko beharrezkoak diren baliabideen zuzkidura”.

Zioak: Xedapena aldatu egiten da halako moldez non hiru urteko epea ez baita mugatzailea, gehieneko epea baino.

Foru Lege proiektua, ezartzen duena nola banatu transferentzia arrunten bidez toki-erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsa.

ARTIKULUEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen toki-erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsa transferentzia arrunten bidez nola banatu ezartzen duen Foru Lege proiektuaren artikuluei aurkezturiko zuzenketak. Proiektu hori 2022ko urtarrilaren 26ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1. ZUZENKETA

**NAVARRA SUMA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

4. artikulua 2. puntua aldatzeko zuzenketa.

“2. Zerbitzuak Finantzatzeko Funtsa eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federaziorako Laguntza handitu egingen dira ekitaldi bakoitzean, aurreko ekitaldiaren aldean, Nafarroako Foru Komunitateak azken ekainean daukan urtearteko KPI-Kontsumoko Prezioen Indizeari jarraituz.

Nafarroako Foru Komunitatearen azken ekaineko KPI-Kontsumoko Prezioen Indizea negatiboa den urteetan, aurreko ekitaldiko zenbatekoei eutsiko zaie.

Montepioen Defizita Finantzatzeko Funtsa eta Lurralde Kohesiorako Funtsa handitu egingen dira ekitaldi bakoitzean aurreko ekitaldiarekiko, Nafarroako Foru Komunitateak aurreko ekainean daukan urtearteko KPI-Kontsumoko Prezioen Indizeari bi portzentaje-puntu gehituta suertatzen den ehunekoan.

Finantzaketa Orokorreko Funtsari gehituko zaio aurreko artikuluan adierazitako Transferentzia Arrunten Funtsaren gehikuntzara iristerainoko zenbatekoa”.

Zioak: Gure ustez, Lurralde Kohesiorako Funtza KPI-Kontsumoko Prezioen Indizearen gainetik gehitu behar da.

2. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

6. artikuluko 1. paragrafoa aldatzeko zuzenketa:

“KO: Lurraren kontribuzioaren kuota osoa, ehuneko 0,25eko tasa aplikatuz kalkulatu. Kuota kalkulatzeko, kontribuzioaren likidazio-oinarria erabiliko da, zeina merkatu-balioetara doitu eta egon baina balioek merkatu-balioarekiko duten urruntasunaren arabera balio-zuzenketa koefiziente baten bidez. Likidazio-oinarritzat ulertuko da higiezinaren katastro-balioa, kanpo utzita konpentsaziorako eskubiderik ez dakarten salbuesiak”.

Zioak: zerga-ahalmena kalkulatzeko, katastro-balioaren ordez kontribuzioaren likidazio-oinarria ezartzen da. Katastro-balioa aipatzen denean, horrek barne hartzen du ondasun higiezin guztiena, gertatzen bada ere parte handi bat kontribuzioa ordaintzetik salbuetsita dagoela, 2/1995 Foru Legearen aginduz. Kasu hori da beste administrazio publiko batzuen titulatasunekoak diren higiezinena. Ahalmen kontzeptuak finantza-ketaren murrizketa eragiten duelarik, kontzeptu horrekiko koherentziagatik ezin dira aintzat hartu indarreko araudiaren arabera likidaziorik erakar ez dezaketen katastro-balioak.

3. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

10. artikuluko 6. puntua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Berrito eraso egiten zaie beste udalerrri batzuetako nafar populazioari zerbitzuak ematen dizkioten udalerriei.

4. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK,

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

10. artikuluko 6. apartatua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 1. apartatua bateratu egiten zaio beste udalerrri batzuetako ikasleen kontsiderazioa ikastetxearen kokalekuari, udalerrri horien guntsa banatzeko irizpide gisa, halako moldez non arrazoi horrengatik finantzaketa globala Funtsean jasotzat jotzen baita. Horrengatik kentzen da 10. artikuluko 6. apartatua, errepikakorra baita.

5. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

10.1 artikulua aldatzeko zuzenketa:

10. artikuluko 1. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“1. Titulartasun publikoko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe bakoitzaren gastu-premiaren indizea kalkulatu da eskola-unitateen kopuruaren, ikastetxe bakoitzean matrikulatuta dauden bertako eta beste toki-entitate batzuetako ikasleen eta zerbitzu osagarriengatik gastuaren estimazioaren arabera, honako formula honi jarraituz:

$$\text{IkastetxeI} = 0,1824 \times \text{EskUnit kop.} + 0,0014 \times \text{MatlKasle kop.} + 0,8162 \times \text{ZerbOsag}”.$$

6. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

20. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Jotzen da jadanik ez dagoela xedapen horretarako beharrik, udalerrri ia guztiak jadanik daudelako eguneratze-prozesuan eta, nolahi ere, Nafarroako Gobernuaren beraren zerbitzuak dira eguneratzeak epe barruan egiteko ahalmenik ez dutenak.

7. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA,
GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOEK,
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
ETA IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA**

20. artikuluari paragrafo berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“20. artikulua. Katastro-balorazioko txostenak gaurkotzea.

Udalerrri bakoitzari dagokion zenbatekoa banatzean, katastroko balioak gaurkotu gabe dituztenei edo udal-mugartean aplikatu beharreko balorazio txostena berrikusteko prozesua indarreko legeriarekin bat hasi gabe dutenei %10 murriztuko zaie transferentzia arrunten kontzeptuan jaso behar duten guztizko zenbatekoa.

Murrizketa horiek proportzionalki banatuko dira Transferentzia Arrunten Funtseko behin betiko esleipena zera baino handiagoa dutenen toki-entitateen artean: urte bakoitzean bermatua den zenbatekoa, kanpo utzirik jarduneko administrazio-langile eta mendeko langileengatiko Montepio Orokorreko defizitaren finantzaketari dagokion zenbatekoa”.

Zioak: Aipatu 20. artikulua aurreikusten du katastroko balioak gaurkotu gabe dituzten edo beren udal-mugartean aplikatzeko den balorazio-txostenaren berrikuspenerako prozesua indarreko legeriaren arabera hasi gabe duten udalerriek jaso beharreko ekarpena murriztea. }Alabaina, artikulua horrek ez du arautu nola banatu zigor horiek gainerako toki-entitateen artean.

Horregatik proposatzen da 20. artikulua horri paragrafo berri bat gehitzea, banaketa hori argitu eta arautzeko.

8. ZUZENKETA

**NAVARRA SUMA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

21. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Oro har, toki entitateen kontabilitate- eta aurrekontu-informazioaren igorpena baldintzatuta egon ohi zaio informazio hori prestatu eta helarazteko bitarteko teknikoak egoteari, eta ez tokiko kudeatzaileen borondateari. Horrelako zigor-neurri batek desmotibazioa eragin lezake, eta hautagai-

tzarik eza eta toki entitateen balizko desagerpena gerta daitezke azken batean. Horregatik, proposatzen da informazio-igorpenaren egoerari buruzko azterlan bat aurkez dadila xedapen hori ezarri aurretik, problematika horretarako soluzio eraginkorrak aurkitze aldera, zigor bat ezarri baino lehen, zeina nagusiki pairatuko baitute arazoaren sortzaile izan ez direnek.

9. ZUZENKETA

**NAVARRA SUMA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bakarra aldatzeko zuzenketa:

“Toki Administrazioaren alorreko eskumena duen zuzendari nagusiak zilegi izanen du funts-mugimenduak egitea Toki entitateek Nafarroako Tributuetan duten parte-hartzearen Funtseko partiden artean transferentzia arruntengatik, baldin eta lotura badute artikuluetan ezarritakoak diren banaketa-irizpide edo formulen aplikazioaren ondorioz funts bakoitzean agerian geratzen diren beharizan edo soberakinekin, eta Toki Araubideko Foru Batzordearen esanetara egonda”.

Zioak: Xedapen horrek zalantza asko sortzen du bere irismenari buruz; izan ere, Toki Administraziozuzendaritza Nagusiari funtseko zuzkiduren artean funts-transferentziak egiteko gaikuntza ematen dio, edo zuzkidura berriak sortzeko, eta, itxura batean, gaikuntza horrek gaingidu egiten ditu zuzendaritza nagusi bati esleitzeko modukoak diren kudeaketa-eskumenak. Funtsa foru lege arautzen da, eta Nafarroako aurrekontu orokorretan sartua izan behar da. Foru lege mailako xedapen batek baizik ez du zilegi zuzkidura berriak sortzea eta horiek banatzeko irizpideak ezartzea.

10. ZUZENKETA

**NAVARRA SUMA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Xedapen iragankor bat gehitzeko zuzenketa:

“Xedapen iragankorra. 2022. urterako, Transferentzia Arrunten Funtseko zenbatekoa bi soluzioren bidez ordainduko da: lehena aplikatuko da legea NAOn argitaratu eta biharamunean, eta lehen parte kalkulatuzeko, kontuan hartuko da 2021ean jaso zutenaren % 50, bigarren eperako utzirik, abuzturako alegia, jaso beharreko guztizko kopuruaren doikuntza”.

Zioak: Lege hau onetsiko da 22. artikuluan soluzio baten ordainketarako ezarritakoa baino

beranduago; hori dela-eta, berehala egin dadila proposatzen dugu.

11. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA,
GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOEK,
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
ETA IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA**

Azken xedapenetatik lehena aldatzeko zuzenketa.

Azken xedapenetako lehenaren lehen paragrafoa aldatzen da. Testu hau izanen du:

“Toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendari nagusiari ahalmena ematen zaio foru

lege honetan ezarritakoa aplikatzeko behar diren xedapenak emateko.

Zehazki, toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendari nagusiari ahalmena ematen zaio lau urtean behin erabaki dezan eguneratuak izan daitezela Nafarroako udalerrien Trakzio Gaitasunaren Indizea kalkulatzeko aztertzen diren aldagaien datuak eta foru lege honen eranskinak, Nafarroako Lurralde Behatokiak horretarako helarazitako datuen bidez, une bakoitzean indarrean dagoen Lurralde Estrategiari jarraituz”.

Zioak: Toki administrazioaren alorreko eskumena duen zuzendaritza nagusiaren ahalmenak mugatu egiten dira foru legeak xedatzen duenaren aplikaziora, “garapen” hitza kenduz, halaber koherentzia gordelek Toki Inbertsioen Plana arautzen duen Foru Lege proiektuaren azken xedapenetako lehenak horri buruz ezartzen duenarekin.

Toki Inbertsioen Plana arautzen duen Foru Lege proiektua.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Toki Inbertsioen Plana arautzen duen Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak. Proiektu hori 2022ko urtarrilaren 27ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA,
GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOEK,
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
ETA IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA**

2. artikulua aldatzeko zuzenketa:

1. apartatuaren azken-aurreko paragrafoko okerra zuzentzea.

Honakoa esan ordez:

“Toki Programazioaren ataleko plangintza hiru urtekoa izanen da 2022-2025 aldirako, 2026-2028 aldirako eta hurrengoetarako, hala badagokio”.

Esan behar du:

“Toki Programazioaren ataleko plangintza hiru urtekoa izanen da 2023-2025 aldirako, 2026-2028 aldirako eta hurrengoetarako, hala badagokio”.

Zioak: Datetako oker bat zuzentzen da.

2. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

2. artikuluko B letra aldatzeko zuzenketa:

“B. Toki Programazioa: atal honetan sartzen dira toki erakundeek eskatutako inbertsioak, arlo hauetakoak: hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako sareak; zoladura-lanak sareekin; zoladura-lanak sarerik gabe; zeharbideen urbanizazio-lanak, toki-zuzkidurak, argiteria publikoa, hilerriak eta biztantzate iraunkorreko tokietarako bideak”.

Zioak: Proposatzen da argiteria, hilerria eta bideak barne hartzea, udalerriei erraztearren udal-eskumeneko obra horietako inbertsioa, zeinak aurrekontu-ahalegin handia eskatzen baitu.

3. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA,
GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOEK,
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
ETA IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA**

3. artikuluko 1. apartatua aldatzeko zuzenketa

Honakoa esan ordez:

“1. “Toki Inbertsioen Planaren urteko zuzkidura 30.000.000 eurokoa da, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak, 123. artikuluan, kapital-transferentzien funtserako ezarritako zenbatekoa alegia.

Zuzkidura hori handitzen ahalko da atxikitako diruzaintza gerakinetik datozen ekarpen gehigarriekin, toki erakundeei eskatutako diru-itzulketetatik datozen sarrerekin edo izaera bereko beste kreditu batzuekin”.

Esan behar du:

“1. Toki Inbertsioen Planaren zuzkidura 30.000.000 eurokoa izanen da 2022ko ekitaldirako.

Hurrengo ekitaldietarako, urteko zenbatekoa izanen da aurreko ekitaldiko aurrekontuan Kapital Transferentzien Funts gisa jasotakoa, handitua Nafarroako Foru Komunitateak aurreko ekainean daukan urtearteko KPI-Kontsumoko Prezioen Indizearen arabera, bat etorri Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 123. artikuluan ezarritakoarekin.

Zuzkidura hori handitzen ahalko da atxikitako diruzaintza-gerakinetik datozen ekarpen gehigarriekin, toki erakundeei eskatutako diru-itzulketetatik datozen diru-sarrerekin edo izaera bereko beste kreditu batzuekin”.

Zioak: Araua egokitzea Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen aldaketan sartutako zuzenketak xedatutakora, non 30 milioiko zenbatekoa zehazten baitzaio kapital-funtsari, eta funts hori urtero eguneratzen baita KPIaren bidez.

4. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

3. artikuluko 1. puntua aldatzeko zuzenketa.

“Zuzkidura hori handituko da atxikitako diruzaintza-gerakinetik datozen ekarpen gehigarriekin, toki erakundeei eskatutako diru-itzulketetatik datozen diru-sarrerekin edo izaera bereko beste kreditu batzuekin”.

Zioak: Asmoa da atxikitako diruzaintza-gerakina Toki Inbertsioen Planari lotzera behartzea.

5. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

3. artikuluko bigarren paragrafoko 4. puntua aldatzeko zuzenketa.

Atxikitako gerakin horrekin handitu beharko da hurrengo ekitaldietako kredituen zuzkidura, funts horri egotz dakizkiokeen aurrekontu betebeharrak betetzeko erabiliko diren kredituena, hain zuzen”.

Zioak: Asmoa da atxikitako diruzaintza-gerakina Toki-erakundeen Partaidetzarako Funtzari lotzera behartzea.

6. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA,
GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOEK,
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
ETA IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA**

4. artikuluko 1. apartatua aldatzeko zuzenketa.

Honakoa esan ordez:

“1. Toki Inbertsioen Planaren urteko zuzkidura honela banatuko da hasiera batez:

A. Inbertsio-programak: 9.000.000 euro

B. Toki-programazioa: 12.000.000 euro

C. Determinazio Libreko programa: 9.000.000 euro

Aurrekoa galarazi gabe, 2022ko ekitaldirako, hasiera batean toki inbertsio planen zuzkidura zati

berdinetan banatuko da Inbertsio Programen eta Determinazio Libreko Programaren artean”.

Esan behar du:

“1. Toki Inbertsioen Planaren urteko zuzkidura honako portzentaje hauen arabera banatuko da hasiera batez:

- A. Inbertsio-programak: % 30
- B. Toki-programazioa: % 40
- C. Determinazio Libreko programa: % 30

Aurrekoa galarazi gabe, 2022ko ekitaldirako, hasiera batean Toki Inbertsioko Planaren zuzkidura zati berdinetan banatuko da Inbertsio Programen eta Determinazio Libreko Programaren artean”.

Zioak: Kapital-funtsarne zenbatekoa urtero KPlarekin eguneratzea proposatzean, programa bakoitzerako hasiera bateko zenbatekoen ordezkari portzentajeak paratzen dira, halatan erraztuz haiek aplikatzea urteak igaro ahala, lerro bakoitzak ez baitu zenbateko finkorik jasotzen, baizik eta hasierako zenbatekoaren gaineko portzentajeak.

7. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

4. artikuluko 2. puntuko lehen paragrafoa aldatzeko zuzenketa:

Ekitaldi bakoitzean, hasiera batean Inbertsio Programei eta Toki Programazioari esleitutako zenbatekoak gehienez ere % 10eraino aldatzen ahalko dira toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiak emandako ebazpen baten bidez, eta berriz esleituko dira bi programen artean, aurrekontu-exekuzioari buruz dauden aurreikuspenen arabera, zerbitzu eskudunak eta Toki Araubideko Foru Batzordeak justifikazio-txostena eman ondoren.

Zioak: Asmoa da zuzendaritza nagusiari udalerrien dirua dela-eta ematen zaion zuzentziarakotasuna mugatzea.

8. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

4. artikuluko 5. puntuko lehen paragrafoa aldatzeko zuzenketa:

“Hasiera batean, ekitaldi bakoitzean Inbertsio Programei eta Toki Programazioari esleitutako zenbatekoen % 5 gordeko da foru lege honen 24. artikuluan deskribatutako larrialdiko prozeduraren bidez behin betiko sartzen diren inbertsioei eta ordainketei aurre egiteko”.

Zioak: Ez da gehiegikeria bat portzentaje handiagoa proposatzea, ikusirik gero eta ohikoagoa dela gertaera katastrofikoak pairatzea, premia ekonomiko urgenteak dakartzatenak arrisku larriagatik, segurtasunagatik, osasun publikoagatik.

9. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

13. artikuluko 2. puntua aldatzeko zuzenketa.

“Toki Programazioaren atalean inbertsio lerro hauek daude:

- A. Hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako sareak.
- B. Zoladura-lanak sareekin.
- C. Zoladura-lanak sarerik gabe.
- D. Zeharbideen urbanizazio-lanak.
- E. Udal eta kontzejuetako dotazioak.
- F. Argiteria publikoa.
- G. Hilerriak.
- H. Biztantzze iraunkorreko lekuetarako bideak”.

Zioak: Proposatzen da argiteria, hilerria eta bideak barne hartzea, udalerriei erraztearren udal-erakundearen obra horietako inbertsioa, zeinak aurrekontu-ahalegin handia eskatzen baitu.

10. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

14. artikuluko 1. puntuko A apartatua aldatzeko zuzenketa:

“1. Obra finantzagarriak:

A. Hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako sareak:

Ur edangarria banatzeko sareak berritzeko inbertsioak, erregulazio biltegietatik hasi eta etxetako harguneetaraino, bai eta ur beltzen saneamenduko sareak berritzekoak ere, etxetako harguneetatik araztegiaren aurreko hustubide

orokorreraino; ur beltzen eta euri-uren baterako sareen orde sare bereizleak jartzeko inbertsioak, hirigunearen barruan sortutako euri-uren sareak berritu edo jartzekoak eta hiri drainatze jasangarri-rako inbertsioak”.

Zioak: Inork ez daki udalerriek berek baino hobeto zein diren beren beharrianak, eta beren sareak 30 urte baino lehenago aldatzeko premiak. Batzuetan beharrezkoa izaten da haiek aldatzea etengabeko hausturengatik edo akatsengatik.

11. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

14. artikuluko azken paragrafoa kentzeko zuzenketa.

Zioak: Inork ez daki udalerriek berek baino hobeto zein diren beren beharrianak, eta beren sareak 30 urte baino lehenago aldatzeko premiak. Batzuetan beharrezkoa izaten da haiek aldatzea etengabeko hausturengatik edo akatsengatik.

12. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

15. artikuluko 2. eta 3. puntuak aldatzeko zuzenketa.

“2. Toki Programazioko inbertsioen gehieneko finantzaketa-portzentajeak honako hauek izanzen dira:

a. Zenbateko lagungarriaren % 70 (BEZik gabe), jasandako BEZaren kenkarirako eskubidea sortzen duten inbertsioetarako.

b. Zenbateko lagungarriaren % 85 (BEZik gabe), jasandako BEZaren kenkarirako eskubiderik sortzen ez duten inbertsioetarako.

Zioak: Gure ustez, Toki Programazioko inbertsio guztietan portzentajeek berberak behar dute izan.

13. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

16. artikuluko 3. puntua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Proposatzen da ez dakiola mugarik ezar toki entitate bakoitzak eskabideak aurkezteari.

14. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

16. artikuluko 3. apartatua aldatzeko zuzenketa.

Honakoa esan orde:

“3. Toki erakunde bakoitzak aurkezten ahal dituen eskaeren gehieneko kopuruari dagokionez arau hauek bete beharko dira:

A. Hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako sareen eta zeharbideak urbanizatzeko lanen inbertsio lerrorako, toki erakunde bakoitzak aurkezten dituen eskaeretatik soilik onartzen ahalko dira toki erakunde horrentzat II. eranskinean finkatutako gehieneko ekarpen ekonomikoari % 50 gehitzearen emaitza adinako ekarpena egiten dutenak, banaka nahiz denak batera.

Ondorio horietarako, onartzen ahalko dira ekarpen partzial bat jaso dezaketen eskaerak, aurreko paragrafoan aipatzen den mugaraino.

B. Zoladura-lanak sareekin egiteko inbertsio lerrorako, soilik onartzen ahalko dira hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako sareetako inbertsio batekin batera gauzatu behar diren obretarako eskaerak, A letran lehen adierazitakoari jarraikiz aurkeztu badira.

C. Udal eta kontzejuetako zuzkidurei eta sarerik gabeko zoladurei dagozkien lerroetan, aldiz, soilik onartzen ahalko dira toki erakunde bakoitzak aurkezten dituen eskaeretatik toki erakunde horrentzat II. eranskinean finkatutako gehieneko ekarpen ekonomikoa adinako ekarpena egiten dutenak, banaka nahiz denak batera, inbertsio lerro bakoitzerako.

Ondorio horietarako, onartzen ahalko dira ekarpen partzial bat jaso dezaketen eskaerak, aurreko paragrafoan aipatzen den mugaraino.

Aurreko apartatuetan xedatutakoa betetzen ez duten eskaerak ez dira onartuko, artikuluko honen 6. apartatuko c letran xedatutakoarekin bat, eta ez dira baloratuko hautatu eta lehenesteko prozeduran.

Mugak aplikatzeko, kontuan hartuko da toki erakundeak bere eskaeretan adierazitako lehentasun-hurrenkera. Hurrenkerarik adierazten ez

bada, eskaera osoak erregistroan duen sarrera ordenaren arabera aplikatuko dira mugak.

Esan behar du:

“3. Zoladura-lanak sareekin egiteko inbertsio-lerroan, soilik onartzen ahalko dira hornidurako, saneamenduko eta euri-uren sareetako inbertsio batekin batera gauzatzekoak diren obretarako eskaerak”.

Zioak: Toki-erakundeek toki-programazioko lerro bakoitzerako eskaerak aurkezteari buruz arauan zegoen muga bertan behera uzten da. Mantentzen den baldintza bakarra da sareekin egitekoak diren zoladura-lanak lotuta egon behar direla sare-berrikuntzarako obrekin.

15. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

21. artikuluko 5. puntuaren b) apartatua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Inork ez daki udalerriek berek baino hobeto zein diren beren beharrianak, eta komeni ote den, eta noiz, beren azpiegiturak aldatu, konpondu edo berritzea.

16. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOEK,

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK

ETA IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK

AURKEZTUA

21. artikuluko 5b apartatua aldatzeko zuzenketa.

Honakoa esan ordez:

“15 urte baino gutxiago duten azpiegiturak konpondu edo berritzeko obrak, ez eta 30 urte baino gutxiago duten hornidurako eta saneamenduko sareetarako inbertsioak ere.

Ez da antzinatasunaren irizpidea aplikatuko inbertsioen xede nagusia denean energia aurrezteko jarduketak eta/edo irisgarritasun arlokoak egitea.

Esan behar du:

“b. 15 urte baino gutxiagoko antzinatasuna duten azpiegiturak konpondu edo berritzeko obrak, eta 30 urte baino gutxiagokoak, hornidura-eta saneamendu-sareetako inbertsioen kasuan.

Ez da antzinatasunaren irizpidea aplikatuko inbertsioen xede nagusia denean energia aurrezteko jarduketak eta/edo irisgarritasun arlokoak egitea”.

Zioak: Gaztelaniazko oker ortografiko bat zuzentzen da.

17. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOEK,

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK

ETA IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK

AURKEZTUA

Xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa.

Honakoa esan ordez:

“Xedapen gehigarri bakarra.

Kapital-transferentzien funtseko ekarpenak, arau honetan arautzen direnak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legaren eta hura garatzen edo ordeztzen duten xedapenen aplikazio esparrutik kanpo daudela deklaratzeko berariaz.

Esan behar du:

“Lehen xedapen gehigarria.

Deklaratzen da Kapital Transferentzien Funtseko ekarpenak, arau honetan eraentzen direnak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legaren eta hura garatzen edo, kasua bada, ordeztzen duten xedapenen aplikazio esparrutik kanpo daudela.

Bigarren xedapen gehigarria.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio etorkizuneko plangintza-aldietan inbertsio-lerro berri bat txertatzeko, argiteria publikoari buruzkoa, toki-programazioko apartatuaren barrenean. Horretarako, onetsi eginen dira finantzatzeko modukoak diren obrak eta inbertsio-premiaren norainokoa zehaztuiko dituzten irizpideak, gehieneko finantzaketa-portzentajeak, laguntzeko moduko zenbatekoaren kalkulu-oinarria eta toki-erakunde bakoitzeko ekarpenaren mugak”.

Zioak: Bigarren xedapen gehigarri bat txertatzen da, etorkizuneko programazio-aldietan argiteria-lerro berri bat sartu ahal izateko toki-programazioaren barrenean.

18. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA,
GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOEK,
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
ETA IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA**

Xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa.

Honakoa esan ordez:

“Xedapen iragankor bakarra.

1. artikuluko 3. apartatuan xedatutakoa galara-zi gabe, foru lege honek indarra izanen du Toki Inbertsioen Plana arautzen duen foru lege berri bat onetsi arte, eta haren erregulazioaren menpe daude, aldi horretan, Inbertsio Programen, Toki Programazioaren eta Determinazio Libreko Programazioaren ataletan egiten diren denbora plangintza eta jarduketa berriak, bai eta plangintza eta jarduketa horiei dagozkien baimenak, gastu konpromisoen egozpena eta ordainketa betebeharrak egitea ere.

Esan behar du:

“Lehen Xedapen Iragankorra

1. artikuluko 3. apartatuan xedatutakoa galara-zi gabe, foru lege honen indarraldia helduko da Toki Inbertsioen Plana arautzen duen foru lege berri bat onesten den arte, eta haren araubidepean egonen dira Inbertsio Programen, Toki Programazioaren eta Determinazio Libreko Programazioaren ataletan aldi horretan egiten diren denbora-plangintza eta jarduketa berriak, bai eta plangintza eta jarduketa horiei dagozkien gastu-konpromisoen baimentzea eta egozpena eta ordainketa-betebeharren egitea.

Bigarren xedapen iragankorra.

Baldin, toki-administrazioaren alorreko zuzendaritza nagusi eskudunaren ebazpen baten bidez, Foru lege honen indarraldia hasi baino lehen inbertsio batzuk jo badira aurrekontu esku-ragarriaren kargura finantzatzeko modukotzat eta Toki Inbertsioen 2017-2019 Planean sartzeko modukotzat, izapidetu eta ebatziko dira 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legeak ezartzen duenari jarraikiz.

Foru lege honen indarraldiaren hasiera-eguna baino lehenago aurkezturiko larrialdiko eskaerak izapidetu eta ebatziak izanen dira 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen aben-

duaren 13ko 18/2016 Foru Legeak ezartzen duenari jarraikiz. Azken arau hori halaber aplikatuko zaie larrialdikotzat kalifikaturiko obrak burutzeko beharrezkoak diren jarduera osagarriei, aipatu eskaeretatik eratorriak direnean.

Jarduketa horiei dagozkien baimena, gastu-konpromisoen egozpena eta ordainketa-betebeharren egitea finantzatzeko dira Toki Inbertsioen Plane-ko kredituen kargura, kreditu horiek handituta aurreko ekitaldietako diruzaintza-gerakin atxikiarekin, foru lege honetako 3 eta 4. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz”.

Zioak: Bigarren xedapen iragankor bat txertatzen da, 2017-2019 TIPetik eginkizun dirauten jarduketak arautzeko, bai eta lege honen indarraldia hasi aurretik eskaturiko larrialdien tratamendurako ere, zeinak izapidetu eta ebatziko baitira 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legeak ezartzen duenari jarraikiz.

19. ZUZENKETA

**NAVARRA SUMA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

II. eranskinen 2. puntua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Zehazten da zein diren finantzatzeko moduko obrak, bai eta finantzatzeko moduko metro karratuko kostua. Jardute-muga ekonomiko ezin da herriaren tamainaren arabera jarri, azpiegiturak hobetzeko aukerak galtzen dira, edo, inbertsioa deialdi ezberdinetan egitea erabakiz gero, haren amaierako kostua nabarmenki igoko da, bideraezina edo jasangarritasun oso gutxikoa izateraino.

20. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA,
GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOEK,
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
ETA IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA**

II. eranskina aldatzeko zuzenketa. 2. K.

Honakoa esan ordez:

“Toki erakunde bakoitzeko gehieneko ekarpen ekonomikoa ez da 150.000 eurotik gorakoa izanen”.

Esan behar du:

“Toki erakunde bakoitzeko gehieneko ekarpen ekonomikoa ez da 160.000 eurotik gorakoa izanen”. Zioak: Toki erakunde bakoitzeko gehieneko ekarpena handitzen da, egokiagotzat jotzen delako.

21. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA,
GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA**
TALDE PARLAMENTARIOEK,
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
ETA IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA

II. eranskina aldatzeko zuzenketa. 2. E.

Honakoa esan ordez:

“Toki erakunde bakoitzeko gehieneko ekarpen ekonomikoa ez da izanen 150.000 eurotik gorakoa, salbu eta alokatzeko etxebizitzak birgaitu edo erreformatzeko inbertsioen kasuan, gehienekoa 60.000 eurokoa izanen baita toki erakunde bakoitzeko”.

Esan behar du:

“Toki erakunde bakoitzeko gehieneko ekarpen ekonomikoa ez da izanen 160.000 euro baino gehiagokoa, salbu eta alokatzeko etxebizitzak birgaitu edo erreformatzeko inbertsioen kasuan, gehienekoa 60.000 eurokoa izanen baita toki erakunde bakoitzeko”.

Zioak: Toki erakunde bakoitzeko gehieneko ekarpena handitzen da, egokiagotzat jotzen delako.

22. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA,
GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA**
TALDE PARLAMENTARIOEK,
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
ETA IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA

IV. eranskineko A) apartatua aldatzeko zuzenketa.

Honakoa esan ordez:

“A. POPULAZIOA: udalerrri bakoitzak zenbateko finko bat jasoko du (CPOB), haren populazio-tartearen arabera, taula honetan ageri den bezala:

Populazio-tartea	Euroak udalerriko 2022. urtea	Euroak udalerriko 2023an eta hurrengo urteetan
99, gehienez	18.216,00	10.929,60
100 eta 499 artean	31.812,00	19.087,20
500 eta 999 artean	54.516,00	32.709,60
1.000 eta 1.999 artean	63.624,00	38.174,40
2.000 eta 2.999 artean	72.732,00	43.639,20
3.000 eta 4.999 artean	81.840,00	49.104,00
5.000 eta 9.999 artean	95.436,00	57.261,60
10.000 eta 29.999 artean	120.516,00	72.309,60
30.000 eta 199.999 artean	172.788,00	103.672,80
199.999 baino gehiago	294.888,00	176.932,80

Ondorio horietarako, kontuan hartuko da toki erakundearen populazio-zifra ofiziala, foru lege honen 30. artikuluan aipatzen den ebazpena argitaratu aurreko urteko abenduaren 31koa”.

Esan behar du:

“A. POPULAZIOA: udalerrri bakoitzak zenbateko finko bat jasoko du (CPOB), haren populazio-tartearen arabera, taula honetan ageri den bezala:

Populazio-tartea	Euroak udalerrriko 2022. urtea	Euroak udalerrriko 2023an eta hurrengo urteetan
99, gehienez	18.216,00	10.929,60
100 eta 499 artean	31.812,00	19.087,20
500 eta 999 artean	54.516,00	32.709,60
1.000 eta 1.999 artean	63.624,00	38.174,40
2.000 eta 2.999 artean	72.732,00	43.639,20
3.000 eta 4.999 artean	81.840,00	49.104,00
5.000 eta 9.999 artean	95.436,00	57.261,60
10.000 eta 29.999 artean	120.516,00	72.309,60
30.000 eta 199.999 artean	172.788,00	103.672,80
199.999 baino gehiago	294.888,00	176.932,80

2023rako ezarritako zenbatekoak hurrengo ekitaldietan handituak izanen dira, Nafarroako Foru Komunitatearen aurreko ekaineko urtearteko KPI-Kontsumoko Prezioen Indizeari jarraituz.

Ondorio horietarako, kontuan hartuko da toki erakundearen populazio-zifra ofiziala, foru lege honen 30. artikuluan aipatzen den ebazpena argitaratu aurreko urteko abenduaren 31koa”.

Zioak: KPlaren arabera gehikuntza Kapital Funtsarentzat ezartzearekiko koherentzian, proposatzen da KPlaren arabera gehikuntza aplikatzea udalerrri bakoitzak 2023tik aurrera urtero jasoko duen kopuruarentzat.

23. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

IV. eranskinen B apartatua aldatzeko zuzenketa:

“B. BIZTANLERIAREN ARABERAKO BANAKETA:

Kontzeptu honetan banatu beharreko zenbateko osoa kalkulatzeko, Determinazio Libreko Programaren urteko zenbatekoari kenduko zaio populazio tarteen arabera banaketa giteko

behar den zenbatekoa, A atalean adierazitakoarekin bat.

Udalerrri bakoitzari kontzeptu honengatik dagokion zenbatekoa kalkulatu da banakizun den guztizkoa zatituz Nafarroako guztizko biztanle-kopuruarekin eta biderkatuz udalerrri bakoitzeko biztanle-kopuruarekin”.

Zioak: Asmoa da kaudimena ematea udalerrri eta kontzeju guztiei, salbuespenik gabe.

24. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA,
GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOEK,
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
ETA IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA**

IV. eranskinen “Determinazio Libreko Programaren ekarpenen kalkulua kontzejuetarako” apartatua aldatzeko zuzenketa.

Honakoa esan ordez:

“Udalerrri konposatu bakoitzari esleitutako ekarpenetik zati bat kenduko da kontzejuen artean banatzeko”. Udalerrri konposatu bakoitzeko kontzejuetarako dagokien zenbatekoa kalkulatzeko,

kasuko udalerriri dagokion zenbatekoaren % 60 biderkatuko da udalerriko biztanleria osoaren gainean kontzejuko bizilagunen kopuruak duen proportzioarekin. Ondoren, kontzejuen arteko banaketa zati berdinetan egingen da, udalerrri konposatuko kontzeju guztien artean”.

Esan behar du:

“Udalerrri konposatu bakoitzari esleitutako ekarpenetik zati bat kenduko da, kontzejuen artean banatzeko. Udalerrri konposatu bakoitzeko kontzejuei dagokien zenbatekoa kalkulatzeko, kasuko udalerriri dagokion zenbatekoaren % 50 biderkatuko da udalerriko biztanleria osoaren gainean kontzejuetako bizilagunen kopuruak egiten duen proportzioarekin. Kontzejuei dagokien zenbatekoaren % 50 zati berdinetan banatuko da, udalerrri konposatuko kontzeju guztien artean. Gainerako % 50a kontzeju bakoitzeko populazioaren proportziora banatuko da”.

Zioak: Kontzejuei banatuko zaien zenbatekoa murriztu nahi da, % 60tik 50era pasatuz.

25. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA,
GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOEK,
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
ETA IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA**

IV. eranskineko “Determinazio Libreko Programaren ekarpenen kalkulua kontzejuetarako” apartatuari gehikuntza egiteko zuzenketa.

Testuaren amaieran honako paragrafo hau gehituko da:

“Kontzeju bakoitzari dagokion gutxieneko zenbatekoa lortuko da udalerrri konposatuari hasieran esleitu zaion ekarpenetik beharrezkoa den zenbatekoa kenduz, kasua bada”.

Zioak: Beharrezkoa da zehaztea nondik kentzen den dirua kontzeju bakoitzarentzat gutxieneko zenbatekoak ziurtatzeko, KPlaren arabera eguneratuta.

26. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA,
GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOEK,
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK**

**ETA IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA**

Hitzaurrea aldatzeko zuzenketa.

9. paragrafoa.

Honakoa esan ordez:

“Arauaren bosgarren apartatuak, berriz, xedatzen du kapital-transferentzien funtsak 30.000.000 euroko zuzkidura izanen duela aurrekontu ekitaldi bakoitzean, eta Toki Inbertsioen Planak arautzen dituzten foru legeetan zehaztuko dela nola banatu kapital-transferentzietarako aurreikusitako zenbatekoa (seigarren apartatua)”.

Esan behar du:

“Arau horren bosgarren apartatuak, xedatzen du ezen Kapital Transferentzien Funtsaren zuzkidurak 30.000.000 euroko zenbatekoa izanen duela 2022ko ekitaldirako eta, hurrengo ekitaldietarako, zenbatekoa aurreko ekitaldiko aurrekontuan Kapital Transferentzien Funts gisa jasotakoa izanen dela, gehituta aurreko ekaineko Nafarroako Foru Komunitatearen urtearteko KPI-Kontsumoko Prezioen Indizea; eta, halaber, kapital-transferentzietarako aurreikusitako zenbatekoaren banaketa (seigarren apartatua) egingen dela Toki Inbertsioen Planei buruzkoak diren kasuan kasuko foru legeetan zehazten den moduan”.

Zioak: Hitzaurrearen testua egokitzea Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen aldaketan aurkezturiko zuzenketara, kapital funtsaren zenbatekoa KPlaren gorakadaren arabera eguneratuz.

13. paragrafoa

Honakoa esan ordez:

“Arauaren egituran daude atariko bat, hiru titulu, xedapen gehigarri bat, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen; horrez gain, bost eranskin ditu”.

Esan behar du:

“Arauaren egituran daude atariko bat, hiru titulu, bi xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen; horrez gain, bost eranskin ditu”.

Zioak: Arauaren egitura bat etorraraztea aurkezturiko zuzenketekin.

22. paragrafoa.

Honakoa esan ordez:

“Toki Inbertsioen Planerako urteko zuzkidura 30 milioi eurokoa da, lehen esan bezala, horixe

baita Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 123. artikuluan kapital-transferentzien funtserako ezarritako zenbatekoa, baina zuzkidura hori handitzen ahaliko da atxikitako diruzaintzako gerakinarekin egindako ekarpen gehigarriekin, toki erakundeei eskatutako diru-itzulketetatik datozen sarrerekin edo izaera bereko beste kreditu batzuekin”.

Esan behar du:

“Toki Inbertsioen Planerako zuzkidura 30 milioi eurokoa izanen da 2022ko ekitaldirako, eta hurrengo ekitaldietan gehitu egingen da Nafarroako Foru Komunitatearen aurreko ekaineko urtearteko KPI-Kontsumoko Prezioen Indizearen arabera, jarraiturik Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 123. artikuluan kapital-transferentzien funtserako xedatzen duenari, lehen esan den bezala. Zuzkidura hori halaber handitzen ahaliko da atxikitako diruzaintzagerakinetik eginiko ekarpen gehigarriekin, toki-erakundeei eskatutako diru-itzulketetatik heldutako diru-sarrerekin edo izaera bereko beste kreditu batzuekin”.

Zioak: Hitzaurrearen testua egokitzea Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen aldaketan aurkezturiko zuzketara, kapital funtsaren zenbatekoa KPIren gorakadaren arabera eguneratuz.

23. paragrafoa

Honakoa esan ordez:

“Horrela, Toki Inbertsioen Planei eta, horrenbestez, Nafarroako toki erakundeei, egonkortasuna ematen zaie finantzaketaren arloan, orain arte izan ez dutena, halako moldean non urtero onartzen diren Nafarroako aurrekontuei buruzko foru legeek bat etorri beharko baitute arauan ezarritako horrekin, eta lehen aipatutako zenbateko hori jaso beharko baitute Inbertsio Programak, Toki Programazioa eta Determinazio Libreko Programak betetzeko”.

Esan behar du:

“Horrela, Toki Inbertsioen Planei eta, horrenbestez, Nafarroako toki erakundeei, orain arte ez bezalako egonkortasuna ematen zaie beren finantzaketan, halako moldez non urtero onetsiko diren Nafarroako aurrekontuei buruzko foru legeek bat etorri beharko baitute aipatu arauan ezarritakoarekin, inbertsio programak, toki programazioa eta determinazio libreko programak exekutatzeko”.

Zioak: Testua hobetzea.

25. paragrafoa

Honakoa esan ordez:

“Toki Inbertsioen Planen urteko zuzkidura horren hasierako banaketa (30 milioi euro) hau izanen da: 9 milioi euro Inbertsio Programetarako, 12 milioi euro Toki Programaziorako eta 9 milioi euro Determinazio Libreko Programarako”.

Esan behar du:

“Toki Inbertsioen Planen urteko zuzkidura horren hasierako banaketa honela egingen da: % 30, Inbertsio Programetarako; % 40, Toki Programaziorako; eta % 30, Determinazio Libreko Programarako”.

Zioak: Kapital-funtsaren zenbatekoa KPIarekin batera urtero eguneratzea proposatzean, programa bakoitzerako portzentajeak ezartzen dira hasierako zenbatekoen ordez, horrela urteak igaro ahalako aplikazioa errazturik.

44. paragrafoa.

Honakoa esan ordez:

“Inbertsioak behin-behinean sartzeko prozedura tramitatzean, eskaera onargarrien kopurua arautzen da, inbertsio motak kontuan hartuta, eta toki erakundeei aurkeztu beharreko dokumentazioa”.

Esan behar du:

“Inbertsioak behin-behinean sartzeko prozedura tramitatzean, toki erakundeei aurkeztu beharreko dokumentazioa arautzen da”.

Zioak: Hitzaurrearen testua aurkeztu diren zuzketei egokitzen zaie, zeinen bidez bertan behera uzten baita toki-erakunde bakoitzarentzako eskabide-muga.

47. paragrafoa

Honakoa esan ordez:

Ekarpenen bolumenaren aldagaia, berriz, neurten da toki inbertsioen azken bi planetan edo plangintza aldietan egin diren inbertsioen onuradun izan den toki erakundeari dagokion per capita ekarpenaren alderantzizko proportzioan.

Esan behar du:

“Ekarpen-bolumena, bestalde, aldagai bat da, zeina neurtzen baita toki-inbertsioen azken bi planetan edo plangintza-aldietan exekutatu diren inbertsioen onuradun izan den toki erakundeari dagokion per capita ekarpenaren alderantzizko proportzioan.

Zioak: Gaztelaniazko oker ortografiko bat zuzentzen da.

90. paragrafoa

Honakoa esan ordez:

“Udalerrri konposatu bakoitzari esleitutako ekarpenetik zati bat kenduko da udal-mugartean dituen kontzejuen artean banatzeko. Udalerrri konposatu bakoitzeko kontzejuei dagokien zenbatekoa kalkulatzeko, kasuko udalerrriari dagokion zenbatekoaren % 60 biderkatuko da udalerrriko biztanleria osoaren gainean kontzejuko bizilagunen kopuruak duen proportzioarekin. Ondoren, kontzejuen arteko banaketa zati berdinetan eginen da, udalerrri konposatuko kontzeju guztien artean”.

Esan behar du:

“Udalerrri konposatu bakoitzari esleitutako ekarpenetik zati bat kenduko da, udal-mugartean dituen kontzejuen artean banatzeko. Udalerrri konposatu bakoitzeko kontzejuei dagokien zenbatekoa kalkulatzeko, kasuko udalerrriari dagokion zenbatekoaren % 50 biderkatuko da udalerrriko biztanleria osoaren gainean kontzejuetako bizilagunen kopuruak egiten duen proportzioarekin. Kontzejuei dagokien zenbatekoaren % 50 zati berdinetan banatuko da, udalerrri konposatuko kontzeju guztien artean. Gainerako % 50a kontzeju bakoitzeko populazioaren proportzioan banatuko da”.

Zioak: hitzaurrearen testua egokitzen da, kontzejuen determinazio librearen banaketa-formulari buruz aurkezturiko zuzenketarekiko koherentziaz.

92. paragrafoa.

Honakoa esan ordez:

“Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan xedatutakoarekin bat, foru lege hau prestatzean kontuan hartu dira artikuluko horretan jasotzen diren erregulazio onerako printzipioak. Zehazki, beharrarena eta eraginkortasunarena, proportzionaltasunarena, segurtasun juridikoarena, bai eta gardentasunarena eta efizientziarena ere”.

Esan behar du:

“Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan xedatutakoarekin bat, foru lege hau prestatzean kontuan hartu dira artikuluko horretan jasotzen diren erregulazio onerako printzipioak. Zehazki, beharrarena eta eraginkortasunarena, proportzionaltasunarena, segurtasun juridikoarena, bai eta gardentasunarena eta efizientziarena ere”.

Zioak: Gaztelaniazko paragrafoko lehen bi lerroak kentzen dira, errepikatuta baitzeuden.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu dute (10-22/PRO-00006).

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKI DA:

1. Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2022ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proposamena, Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea aldatzen duena.

HITZAURREA

I

Joko-jarduerak arautzeko eskumena Estatuaren eta autonomia erkidegoen artean dago banatuta. Batetik, Estatuaren eskumena eskusiboa da estatu-eremu batean egiten denean jarduera, presentziala denean nahiz bide elektronikoak, informatikoak, telematikoak eta interaktiboak erabiliz egiten denean. Bestetik, autonomia erkidegoek gai honen gaineko eskumenak har ditzakete

jokoa beren lurralde-esparru zorrotzera mugaturik egiten denean, zein ere den joko-egikera.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44. artikulua Nafarroako Foru Komunitateari esleitu zion kasino, joko eta apustuen arloko eskumen eskusiboa, Kirol Ongintzako Elkarrekiko Apustuak salbuetsita. Xedapen hori mamitu zen urtarrilaren 24ko 226/1986 Errege Dekretuan, zeinaren bidez eskualdatu baitziren aipatu eskumenak. Arau horren indarrez, Nafarroari dagokio baimena ematea, besteak beste, kasinoen, bingo-aretoen, joko-aretoen eta apustudenden instalazio, irekitze eta funtzionamendurako, bai eta jolas-makinak nahiz zorizko jokoetarako makinak ustiatzeko ere, Foru Komunitatearen esparruan.

II

Nafarroaren eskumena erabiliz, garai batean Nafarroako Jokoari eta Apustuei buruzko ekainaren 27ko 11/1989 Foru Legeak –jada indargabetuta dago– eta gaur egun Nafarroako Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legeak joko-jarduera arautu dute hura enpresa-jardueratzat harturik, eta, aldi berean, gizarteko sektore kalteberenen eskubideak babesten saiatu dira, hau da, joko-jardueraren kontsumo gehiegizkoa eta itxuragabea dela-eta beren osasunean edo ekonomian kalte gehien jaso dezaketen sektoreen eskubideak.

Foru legedia garatzeko, Nafarroako Gobernuak arian-arian tankeratu du joko-sektorea osatzen duten jardueretako bakoitzaren berariazko araubidea, honako arau hauen bitartez:

– 73/2010 Foru Dekretua, azaroaren 15ekoa, Nafarroako Binguoen Erregelamendua onesten duena.

– Abuztuaren 30eko 270/1999 Foru Dekretua, Joko Aretoen Erregelamendua onesten duena.

– 94/1991 Foru Dekretua, martxoaren 21ekoa, Rifa, Tonbola eta Zorizko Konbinazioen Arautegia onesten duena.

– 181/1990 Foru Dekretua, uztailaren 31koa, Joko Makinetarako Arautegia onesten duena.

– 74/1989 Foru Dekretua, martxoaren 30ekoa, Joko Makinak instalatzeko Baimenak arautzen dituena.

Kontuan hartu behar da zerrenda horretan ez dela agertzen 16/2011 Foru Dekretua, martxoaren 21ekoa, Nafarroako Apustuen Erregelamendua onesten duena, arau hori baliogabetu egin baitzuen Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak, 2014ko urtarrilaren 23ko epaiaren bidez (Auzitegi Gorenak berretsia, 833/2014 zenbakiko errekurtsioan emandako 2016ko martxoaren 8ko epaiaren bidez), halako moldean non gaur den egunean bat bera baita joko-aretoak arautzen dituen araua eta apustu-denden gainekoa.

Halaber, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren ekainaren 23ko 98/2017 Foru Aginduaren bitartez, jokoaren eta ikuskizun publikoen alorreko Kontrol, Ikuskapen eta Zehapenerako I. Plan Orokorra onetsi zen. Plan horren 1. ardatzak (Jokoaren alorra) badu adingabeekin eta beste kolektibo kaltebera batzuekin zerikusia duen jarduketa lerro bat, helburu nagusi duena eragozteko haiek jokoetan parte har dezaten eta ebaluatzea zenbateraino diren egokiak protokoloak, jarduketa arauak eta enpresek joko-lokaletarako sarbidea eta joko bera kontrolatzeko erabiltzen dituzten aplikazioak edo gailu teknologikoak.

Esan behar da, halaber, apirilaren 10eko 18/2015 Foru Legearen bidez aldatu egin dela Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea, behar diren murrizketa guztiak ezartzeko jokorako sarbideen modalitate guztietan. Horrela joko arduratsua bultzatzen da arlo horretan ere, aurrez aurreko jokoarekin egiten zen bezala.

Estatu-esparruan, 2020ko azaroaren 3an Espainiako Gobernuak azaroaren 3ko 958/2020 Errege Dekretua onetsi zuen, joko-jardueren gaineko komunikazio komertzialei buruzkoa. Biharamunean hartu zuen indarra, salbu eta 2021eko urtarrilera eta maiatzera arte atzeratu ziren artikulua eta xedapen batzuek.

Errege dekretu hori Jokoa arautzen duen maiatzaren 27ko 13/2011 Legea osatzeko sortu zen. Izan ere, legearen xede nagusiak dira adikzio-jokabideei aurrea hartzea eta adingabeak zein beste talde kaltebera batzuk babestea, eta dekretuarenak, batetik, joko-jarduerak garatzeko gai-

tzen duten tituluak dituzten entitateei baldintzak ezartzea publizitate, babesletza nahiz sustapen jarduerak edo beren jarduerari buruzko bestelako komunikazio komertzialak garatu ahal izateko; eta, bestetik, joko arduratsu edo segurua sustatzeko eta kontsumitzaileak babesteko politika jakin batzuk garatzeko oinarri izan behar duten baldintzak ezartzea joko-jarduerak garatzeko gaitzen duten tituluak dituzten entitateei.

Horrek 13/2011 Legearen aplikazio-eremuko joko-jarduerak garatzen dituzten entitateei eragiten die –tartean direla loteria-jokoak merkaturatzeko izendatutako operadoreak–, eta edozein bitarteko edo euskarri erabiliz operadoreen joko-jarduerari buruzko komunikazio komertzialak zabaltzen dituzten pertsona fisiko, juridiko, pribatu edo publikoei, esaterako komunikazio elektroniko edo ikus-entzunezkoaren zerbitzuen emaleei, informazioaren gizarteko zerbitzuen emaleei (afiliatuak, web-orriak eta sare sozialak barne) eta beste edozein komunikabideri. Halaber, aplikatzea litzateke komunikazio komertzialak prestatu, igorri edo hedatzearen tarteko faseetan parte hartzen duten entitateei, hala nola publizitate sareei, publizitate agentziei edo bitartekaritza zerbitzuen emaleei. Komunikazio komertzialei dago kienez, salbuetsi egiten dira zozketen emanaldiak eta emaitzen hedapena. Baita operadoreek joko-jarduerak eskaintzeko erabiltzen dituzten web.es orri edo aplikazio mugikorretan bakarrik iragartzen diren joko-produktuak ere.

IV

Nafarroako Gobernuak 2019ko urrian ekin zien Jokoari buruzko Foru Legea aldatzeko atariko lanei, funtsezko hiru arlo nagusi jorratuz: ludopatiaren prebentzioa, adingabeen eta kolektibo babesgabeen babesa, eta joko arduratsuen sustapena. Era berean, Nafarroako Parlamentuak lantalde bat eratu zuen Nafarroan apustu-etxeak nola arautu aztertzeko, eta horren irizpena onetsi zen Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuraren 2021eko ekainaren 10eko Erabakiaren bidez, zeinak onesten baitu Nafarroan apustu-etxeak nola arautu aztertzeko Lantaldearen txostena. Bi erakunde lanetatik atera dira lege-testu honetan bildutako proposamenak.

Kezka sozial eta politikoaren iturri izan da kirol-apustuen eredu guztiek oso urte gutxitan izan duten hazkundera, bai eta horrelako jokoekin zerikusia duten ludopatiaren gorakada ere, batez ere gazteek pairatzen dutena. Osasun publikoko arazotzat hartu izan da hori, eta, beraz, beharrezkoa da foru legean jasotako araudi indarduna egokitzea.

Alarma jo dute familiek, nerabe eta gazteekin lan egiten duten profesionalak, prebentzioaren arloan eta jokoarekin –batez ere kirol-apustuekin– lotura patologikoa duten pertsonen laguntzen jarduten duten elkarteek, eta maila guztietako administrazio publikoetan nahiz entitate pribatueta egindako azterlanek.

Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan, kirol-apustuak nabarmen hazi dira. Establezimendu publikoetan jarrita dauden kirol-apustueta makinak nagusitzen ari zaizkie B motako makinei, halako moldez non bihurtzen ari baitira nafarrek diru gehien gastatzen duten joko-modalitateak.

Datu horiek guztiek erakusten dute kirol-apustuak izanen direla etorkizun ez oso urrunean dirurik gehien erakarriko duen joko mota, orain arte izandako gorakadak bere bilakabideari eutsiz gero. Igoera horren berri ematen du Nafarroako apustu-makinen parkeak: 2018an 1.138 izateraino iritsi ziren, urtebete lehenago 981 izatetik. Aipatu kopuruak ia bikoiztu egiten du duela lau urte instalatuta zeuden 675 makinen kopurua. Kirol-apustuak hedatzen ziren bitartean, txanpon-makinen parkeak ia berdin jarraitu zuen 2019. urtean Nafarroan, aurreko ekitaldian baino 20 unitate gutxiagorekin eta guztira 1.945 makinarekin. Lau urte lehenago, berriz, 1.986 zeuden Foru Komunitatean.

Beraz, Nafarroako Foru Komunitateak kirol-apustuen arloan dituen eskumenak erabili nahi dira araudi berri honetan, behar diren mugak ezarri interes orokorra babesteko eta osasun publiko arazoei aurrea hartu eta itzuri egiteko.

Adikzioaren arriskuak arintzeko neurriak ezarri nahi dira, irisgarritasuna gutxitu, esposizioa murriztu, babes faktoreei eragin hezkuntzaren bidez eta gizarte sentsibilizatuz, eta, azken batean, hezkuntza, familia, gizarte eta osasun esparruen arteko interakzioarako mekanismoak ezarri.

Horregatik guztiagatik proposatzen da Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea aldatzea, lege-aldaketak eginez lokal eta makinen araudian, irekitzeko eta ixteko ordutegietan, kontrolen, publizitatean eta babesletzan, helburu izanik adikzioaren arriskuak arintzea, irisgarritasuna gutxitzea, babes faktoreei eragitea hezkuntzaren bidez eta gizarte sentsibilizatuz, eta, azken batean, hezkuntza, familia, gizarte eta osasun esparruen arteko interakzioarako mekanismoak ezarritzea.

Arauaren aldaketak tresna eraginkorra izan behar du jokoaren aurrean sektore kalteberenak babesteko, batez ere adingabeak, gazteak eta nerabeak, horiek zaintza edo babes berezia behar

baitute. Horregatik, Administrazioaren esku-haritzeak xede izan behar du arriskua duten kolektiboak defendatzea merkatu irekiko eta lehia libreko ekonomiaren testuinguruan, arreta berezia jarriz haur eta gazteei, josteta-jarduera batek ez ditzan joko patologikora eraman.

1. artikulua. Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea aldatzea.

Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legeari aldaketa hauek egiten zaizkio:

Bat. Azken paragrafo bat gehitzen zaio 1. artikulua 1. apartatuari. Hona testua:

“Behar diren mekanismoak prestatzea, Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan mota guztietako kirol-apustuen publizitatea debekatuko dutenak, bai eta prostituzioarekin zerikusia duen edozein negozioren publizitatea ere, kirolarien jantzetan, instalazioetan, babesletzan edo antzekoetan. Debeku hori kirol kategoria guztietan ezarriko da, eta hura aplikatu ahal izateko baldintzak izanen dira dena delako entitateak egoitza soziala Nafarroan izatea eta kirol-lehiaketa, -jarduera edo -gertakariaren eremua tokikoa, probintziakoa edo autonomia erkidegokoa izatea”.

Bi. 2 artikulua a) letra aldatzen da. Hona testua:

“a) Hirugarrenei jasan ditzaketen kalteak saihestea, bereziki sektorerik ahulenei, hala nola adingabeei edo gaitasuna judizialki aldatua duten pertsonen, ebazpenaren edukia araberan, edota adimen edo nahimen gaitasunak murriztuak dituztenei”.

Hiru. Azken paragrafo bat gehitzen zaio 2. bis artikulua 1. apartatuari. Hona testua:

“Horretarako, Hezkuntza Departamentuak prebentzioaren arloko jarduketa programa berriak ezarri ahalko ditu ikastetxeetan ezar ditzaten, eta lankidetzak hitzarmenak sinatu jokoarekin zerikusia duten patologiak saihestea xede duten entitate eta elkarteekin”.

Lau. 2. bis artikulua 2. apartatua aldatzen da. Hona testua:

“2. Joko-antolatzaileek, beren jardunean aritzen, arreta berezia emanen diete arrisku-taldee, eta joko-jarrera neurritsu eta arduratsuak sustatuko dituzte, egoki diren informazio-emateen bitartez, zeinetan zehatz adieraziko baita debeku dutela parte hartzea adingabeek eta zaurgarriak diren bestelako kolektiboek, hala nola gaitasuna judizialki aldatua duten pertsonen edota adimen edo nahimen gaitasunak murriztuak dituztenek”.

Bost. 10. artikulua aldatzen da. Honela geratu-ko litzateke idatzita:

“10. artikulua Jokoen publizitatea.

1. Jokoari edo apustuei buruz eta/edo jokatze-ko edo apustuak egiteko lokal eta tokiei buruz publizitatea egiteko eta jarduera horiei babes-emaiteko, aurretik arlo horretan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eskumena duen departamentuari jakinarazi beharko zaio. Jakinarazpenean egin nahi den kanpainaren edo jardueraren datuak adierazi beharko dira, hasi baino hilabete bat lehenago gutxienez.

Publizitateak eta sustapenak beti gorde beharko dituzte adingabeen babesari buruzko arauak, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legean eta hura garatzen duen araudian ezarriak.

Administrazio eskudunak egiaztatu beharko du ezen, legez ezarritako printzipio, betebeharrak eta debekuak betetzeaz gainera, sustatzen direla joko-jarrera neurritsu, arduratsu eta ez-konpulsiboak, eta, betiere, mezuen bidez ohartarazten dela adingabeek jokia debekatua dutela.

Aintzat hartu beharreko alderdi batzuk izanen dira publizitate-emanaldien ordutegiak edo haien bitartekoak, entzute publikoko pertsona edo pertsonaien agerpenaren debekua edo mugapena, babesletza- eta sustapen-jardueren arauak, gogoan izanik joko neurritsu eta ez-konpulsiboko jarrerak sustatu beharra.

2. Ez da onartuko honelako komunikazio komertzialik:

1. Joko-jardun burugabe, konpulsibo, itxuragabe, neurrigabe, adikziozko edo patologikoan aritzeko pizgarri direnak.

2. Jokatzeko ez duten pertsonak arbuia eta jokatzeko dutenei nagusitasun soziala ematen dietenak.

3. Joko-jarduerak lotzen dituztenak arrakasta pertsonal, familiar, sozial edo profesionalaren adierazgarri diren ideia edo portaerekin.

4. Joko bateko parte-hartzaileentzako maileguen edo beste edonolako kreditu-modalitatearen eskaintzak egiten dituztenak.

5. Jokoa alternatibatzat iradokitzen dutenak problema pertsonal, profesional, finantzario edo hezkuntzako, bakardadearen edo depresioaren aldean.

6. Saridun izateko aukerari buruz tronparazten dutenak edo apustu-errepikapena iradokitzen dutenak.

3. Beti debeku izanen da:

a) Apustu-enpresak kirol-kluben babesle izatea; bereziki, debeku da haien publizitatea jartzea kirol-jantzietan eta elastikoetan, edo kirol-instalazio eta estadioetan.

b) Apustuen publizitatea jartzea Nafarroan egin eta osorik edo partez dirulaguntza publikoen bidez finantzatzen den edozein kirol-jardueratan.

c) Horrelako publizitatea jartzea zentro hauetatik 300 metrora baino hurbilago dauden euskarrietan: ikastetxeak, kiroldegiak, kultura, josteta edo osasun zentroak, edo joko-adikzioa, osasun mentaleko arazo larriak edo adimen desgaitasuna duten pertsonen errehabilitaziorako lokalak.

d) Kirol-apustuen publizitatea jartzea administrazio publikoen egoitzetan, 18 urtetik beherakoentzako guneko publikoetan, osasun zentroetan, gizarte zentroetan, zentro soziosanitarioetan, eskola zentroetan, zinema aretoetan eta kirol-ekitaldiak egiten diren lokal eta instalazioetan.

e) Postaz, telefonoz edo bide telematikoez publizitatea egitea, eta, oro har, publizitatea etxera igortzea.

f) Publizitatea egitea Nafarroako egunkari, aldizkari edo bestelako informazio bideetan eta Nafarroan kokatutako irrati eta telebista zentroetan 05:00etatik hurrengo eguneko 01:00 arte.

4. Joko eta apustuen arloan eskumena duen departamentuak ahalmena izanen du proposatzen den jarduera debekatu edo baldintzatzeko, jardueraren ondorioz edo jarduerak bultzatutako indarkeriaren ondorioz antolamendu juridikoan ezarritako askatasun edo eskubideei kalte egiten bazaie edo babestu beharreko sektore sentiberaren bat erabili edo haiei kalte egiten bazaie (adingabeei, edo gaitasuna judizialki aldatua duten pertsonen, ebaspenaren edukiaren arabera, edota adimen edo nahimen gaitasunak murriztuak dituztenei). Horrelako kasuen berri emanen zaio gizarte zerbitzuen eta adingabeentzako babesaren arloan eskumena duen departamentuari.

5. Beren lanbidea, gizartean duten ospea edo beste edozein inguruabar dela-eta adingabeentzat erreferente izan daitezkeen pertsonak jokoen publizitatean erabili ez daitezkeen begiratuko da, eta exijituko da publizitatean berriaz ohartaraz dadila jokoak ludopatía eragin dezakeela eta adingabeek debeku dutela jokoa aritzea.

Publizitatean ez da inola ere onartuko osasun arloko profesionalak edo zientzialariek parte hartzea, ez eta osasunarekin zerikusia duten elkarte, korporazio, fundazio edo erakundeen abalak erabiltzea ere”.

Sei. 14. artikuluari apartatu berri bat eransten zaio. Hona testua:

“6. Joko eta apustuen establezimenduen arteko gutxieneko distantziak.

Inola ere ezin izanen da baimenik eman beraiazko joko-establezimenduak zentro hauetatik 300 metrora baino hurbilago instalatzeko: adingabeei irakaskuntza arautuak ematen dizkieten ikastetxe publiko edo pribatuak, jokalariek patologiaren errehabilitaziorako zentro ofizialak, adimen desgaitasuna edo gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitzak, osasun, kirol, kultura eta aisia zentroak eta gaztetxeak. Era berean, joko eta apustuen establezimenduen arteko gutxieneko distantzia 300 metro izanen da.

Aurreko paragrafoan aipatutako distantzia (ezertan galarazi gabe udalerriri bakoitzak gutxieneko distantzia hori handitzea) beti neurtuko da jabari publikoko bidean oinez egin daitekeen ibilbide laburren etik.

Udalek gutxieneko distantzia hori baino handiagoa ezarri ahalko dute beren udal-mugartean”.

Zazpi. 18. artikulua 4 apartatua aldatzen da. Hona testua:

“4. Nafarroako Gobernuak joko-makinek bete beharreko baldintzak ezarriko ditu, bai eta, behar izanez gero, toki, lokal edo establezimendu jakinetan joko-makinak jartzeko baldintzak ere. Betiere, joko-makinak erabili ahal izateko urrutiko kontrola ezarriko da tabernetan edo ostalaritzako establezimenduetan”.

Zortzi. 23. artikulua 2. apartatuari paragrafo bat eransten zaio. Hona testua:

“Baimenduriko toki, lokal edo establezimenduak tabernetatik eta ostalaritzako establezimenduetatik bereizi beharko dira. Ezin izanen da graduazio handiko edari alkoholun zerbitzatu, ez eta edari alkoholunekin zerikusia duten sustapenen publizitatea egin ere”.

Bederatzi. 26. artikulua aldatzen da. Honela geratuko litzateke idatzita:

“26. artikulua Joko-aretoak, apustu-lokalak edo antzekoak.

1. Joko-aretoak edo apustu-lokalak dira joko-makinak ustiatzen diren lokalak.

2. Aurreko apartatuan eta hurrengo artikuluan definitutako lokalak baldintza hauek bete beharko dituzte beti:

a) Gutxienez 50 metro karratuko azalera izan behar dute.

b) Errotulu batean jarri behar dute apustu-lokalak direla (edo apustu-guneak).

c) Ongi ikusteko moduan kartel bat jarri behar dute adierazteko debeku dutela apustuetan parte hartzea adingabeei eta debekudunen erregistroan inskribatutako pertsonak, lokalaren barnealdean eta kanpoaldean.

d) Harrera-zerbitzuan ongi ikusteko moduan iragarri behar dute adikzioa sor dezakeela joko eta apustuetan gehiegi aritzeak, lokalaren barnealdean eta kanpoaldean.

e) Joko-atarietan argi iragarri beharko da apustuetan parte hartzea debeku dutela adingabeei eta debekudunen erregistroan inskribatutako pertsonak”.

Hamar. 26. bis artikulua berri bat gehitzen da. Hona testua:

“26 bis artikulua. Apustu-terminalak ostalaritzako establezimenduetan edo antzekoetan.

1. Taberna, taberna berezi, kafetegi eta kafe-ikuskizun gisa berariaz baimendutako ostalaritzako establezimenduek apustu-makina osagarri bat bakarrik instalatu ahalko dute. Hori gorabehera, baimena ematen ahal da lokal horietan sari programatutako joko-makina bat instalatzeko, B motakoa.

2. Instalatzen den apustu-makinak urrutiko kontrolaren bidez aktibatu eta desaktibatutako sistema eduki beharko du, establezimenduen arduraren duten langileek erabili ahal izateko modukoa. Horrela jokoan aritzea eragotziko zaie jokoak debeku duten pertsonari eta adingabeei.

Joko-partidak amaitu ondoren, eta joko-makina erabilia izaten ari ez den bitartean, desaktibatuta egonen da, soinuak, ikusizko edo argizko kitzikagarriak ez dariola.

3. Egokitze epe bat ezarriko da, ostalaritzako establezimenduetan gaur egun instalatuta dauden makinei urrutiko kontrolaren bidez aktibatu eta desaktibatutako sistema ezartzeko.

4. Makina instalatuta dagoen lokalaren arduraren duten langileen erantzukizuna izanen da legez ezarritako joko-debekuak betearaztea.

5. Horrelako makinak aipatu ostalaritzako establezimenduetan instalatzerakoan, ezin dira

paratu terraza edo bide publikoetan, ez eta lokalen kanpoaldean ere, ez eta ikastetxe-, unibertsitate-, osasungintza-, gizarte- edo gazteria- erai-kinen barneko eta kirol-guneetako tabernetan edo kafetegietan”.

Hamaika. 32. artikulua 1 apartatua aldatzen da. Hona testua:

“1. Honako hauek debeku dute jokoan parte hartzea, jokoan aritzea eta berariazko joko-establezimendu bezala baimenduta dauden areto eta tokietan sartzea:

a) Adingabeek. Adingabeek sarbidea debeku dutela adierazi beharko da lokaleko sarreran eta web-orriaren atarian, argi eta ongi ikusteko moduan.

b) Epailearen erabakiaz horrela ezarria edo gaitasuna aldatzeko ebazpenean horrela deklaratu duten pertsonak, eta zarrastelek edo konkurtso-prozeduran errudun deklaratuak izan direnek, birgaitzen ez diren bitartean.

c) Horditasun, droga-intoxikazio edo erotasun sintomak agertzen dituen edozein pertsonak, edo armak eta halakotzat erabil daitezkeen objektuak daramatzala sartu nahi duenak.

d) Beren buruari jokia galarazi dioten pertsonak”.

Hamabi. 38. artikulua letra berri bat gehitzen zaio. Hona testua:

“q) Nafarroako Foru Komunitatearen eremuko mota guztietako kirol-apustuen publizitatea jartzea kirolarien jantzietan, instalazioetan, babesletzan edo antzekoetan, edozein motatako kirol-lehiaketa, -jarduera edo -gertakarietan, betiere entitateak Nafarroan badu egoitza soziala eta kirol-lehiaketa, -jarduera edo -gertakaria toki eremuko edo autonomia erkidegoaren eremuko bada”.

Hamahiru. 41. artikulua 3 apartatua aldatzen da. Hona testua:

“3. Joko eta apustuak antolatzen edo ustiatzen dituzten enpresek har litzaketan erantzukizunak

ezertan galarazi gabe, adingabeek eta dena delakoagatik halako jardueretarako sarbidea edo parte-hartzea debekatua duten pertsonak erantzukizuna hartuko dute foru lege honen 40. artikuluan arin gisa tipifikaturiko arau-hauste bat egiteagatik”.

Hamalau. 43. artikulua apartatu berri bat eransten zaio. Hona testua:

“4. Adingabeei zehapen arinak ezarri ordez, ahal dela, neurri hezitzaileak ezarriko zaizkie, hala nola gizarte eta hezkuntza lanak edo komunitatearentzako neurriak”.

Hamabost. Xedapen gehigarri bakarraren titulua aldatzen da. Hona testua:

“Lehen xedapen gehigarria. Genero edo efektu estankatuak”.

Hamasei. Xedapen gehigarri berri bat eransten zaio, honako testuarekin:

“Bigarren xedapen gehigarria. Dirulaguntza publikoak.

Dena delako joko-modalitatean jarduten duten enpresek osoki nahiz partzialki babesturiko edo haien publizitatea daukaten kirol-jarduerak ez dira dirulaguntza publikoak eskatzeko moduan egonen, eta halaber ezin izanen dute halako dirulaguntzarik lortu”.

Xedapen gehigarri bakarra. Fiskalitateari buruzko azterlana.

Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren bidez, arau honek indarra hartu eta 8 hilabeteko epean, azterlana egingen du Nafarroako Foru Komunitatean jokoak duen fiskalitateari buruz.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzekoa.

PROPOSAMENA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak erretiratu dutela haiek aurkezturiko foru lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei

buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzekoa. Foru lege proposamena 2022ko urtarraren 28ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-22/PRO-00002).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1/2022 Foru Legea, urtarrilaren 26koa, Zenbait Fundazioren Zuzendaritza Organoak arautzen dituen otsailaren 17ko 2/2014 Foru Legea aldatzen duena.

AKATS ZUZENKETA

Akats bat atzeman da 2022ko urtarrilaren 27ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako urtarrilaren 26ko 1/2022 Foru Legean, zeinaren bidez aldatzen baita Zenbait Fundazioren Zuzendaritza Organoak arautzen dituen otsailaren 17ko 2/2014 Foru Legea. Horrenbestez, honako zuzenketa hau egiten da:

Hitzaurrean, lehen paragrafoa eta azken paragrafoko azken esaldia kendu behar dira. Beraz, honako hau dioen tokian:

“Foru lege honen xedea da otsailaren 17ko 2/2014 Foru Legea aldatzea; lege horrek aurrezki kutxen eraldaketatik sortutako fundazioen zuzendaritza organoak arautzen ditu.

Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioa edo Foru Berria aldatu eta eguneratzen duen apirilaren 4ko 21/2019 Foru Legea onetsi ondoren funtsean aldatu da fundazioen araubide juridikoa, eta horrek eragin du Nafarroako Fundazioei buruzko ekainaren 30eko 13/2021 Foru Legea onestea, zeinak lehendik dagoen araudia Foru Berriari egokitzen dion eta Foru Berriaren 42. legearen babesean eratutako fundazio guztiei aplikatu beharreko araudi substantiboa biltzen duen.

Araudi berria gorabehera, 2/2014 Foru Legeak bere indarrari eusten dio, aurrezki kutxen eralda-

ketatik sortutako fundazioek izaera berezia dutelako.

Nafarroako kasuan, Nafarroako Kutxa Fundazioa Nafarroako Kutxaren oinordekoa da. Azken horrek nortasun propiodun kreditu erakundea izateari utzi zion bere finantza-negozioa Banca Cívica banketxeari eskualdatzean —gero Caixabankek xurgatuko zuen— eta banku fundazio bilakatu zen Nafarroako Kutxaren ongintza- eta gizarte-ekintzaren muina izandakoa kudeatzeaz arduratzeko, Kreditu Erakundeak Berregituratzeari eta Suntsiarazteari buruzko azaroaren 14ko 9/2012 Legea aplikatuta.

Caixabank SAK Bankia SA xurgatu eta biek bat egin izana Valentziako Merkataritza Erregistroan inskribatzearen ondorioz, 2021eko martxoaren 26az geroztik Nafarroako Kutxa Fundazioak jada ez ditu betetzen aurrezki kutxei eta banku fundazioei buruzko araudiak banku fundazioa izateko eskatzen dituen baldintzak. Beraz, fundazio arrunt bilakatu behar da.

Kontuan izanda Nafarroako Kutxa Fundazioaren jatorria eta haren ezaugarri berezia, justifikatuta dago fundazio horiek bestelako araubidea izatea, parte-hartze eta kontrol publiko zabalagoarekin eta gardentasun-arauei lotua. Horregatik guztiagatik, bidezkoa da Zenbait Fundazioren Zuzendaritza Organoak arautzen dituen otsailaren

17ko 2/2014 Foru Legea aldatzea egungo errealitate juridiko eta sozialera egokitzeko”.

Honako hau behar du:

“Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioa edo Foru Berria aldatu eta eguneratzen duen apirilaren 4ko 21/2019 Foru Legea onetsi ondoren funtsean aldatu da fundazioen araubide juridikoa, eta horrek eragin du Nafarroako Fundazioei buruzko ekainaren 30eko 13/2021 Foru Legea onestea, zeinak lehendik dagoen araudia Foru Berriari egokitzen dion eta Foru Berriaren 42. legearen babesean eratutako fundazio guztiei aplikatu beharreko araudi substantiboa biltzen duen.

Araudi berria gorabehera, 2/2014 Foru Legeak bere indarrari eusten dio, aurrezki kutxen eraldaketatik sortutako fundazioek izaera berezia dutelako.

Nafarroako kasuan, Nafarroako Kutxa Fundazioa Nafarroako Kutxaren oinordekoa da. Azken horrek nortasun propiodun kreditu erakundea izateari utzi zion bere finantza-negozioa Banca Cívica banketxeari eskualdatzean —gero Caixaban-

kek xurgatuko zuen— eta banku fundazio bilakatu zen Nafarroako Kutxaren ongintza- eta gizarte-ekintzaren muina izandakoa kudeatzeaz arduratzeko, Kreditu Erakundeak Berregituratzeari eta Suntsiarazteari buruzko azaroaren 14ko 9/2012 Legea aplikatuta.

Caixabank SAK Bankia SA xurgatu eta biek bat egin izana Valentziako Merkataritza Erregistroan inskribatzearen ondorioz, 2021eko martxoaren 26az geroztik Nafarroako Kutxa Fundazioak jada ez ditu betetzen aurrezki kutxei eta banku fundazioei buruzko araudiak banku fundazioa izateko eskatzen dituen baldintzak. Beraz, fundazio arrunt bilakatu behar da.

Kontuan izanda Nafarroako Kutxa Fundazioaren jatorria eta haren ezaugarri berezia, justifikatuta dago fundazio horiek bestelako araubidea izatea, parte-hartze eta kontrol publiko zabalagoarekin eta gardentasun-arauei lotua”.

Iruñean, 2022ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da Nafarroako haur- eta gazte-populazioan suizidioa prebenitzeko estrategia bat ezar dezan.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita Nafarroako haur- eta gazte-populazioan suizidioa prebenitzeko estrategia bat ezar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da Nafarroako haur- eta gazte-populazioan suizidioa prebenitzeko estrategia bat ezar dezan.

Azken urteotan, eta batez ere COVID-19aren pandemia hasi zenez geroztik, haur eta nerabeen osasun mentalak okerrera egin du. Gorakada atzeman da antsietate- eta depresio, sintometan, autolesioetan eta suizidio-jokaeretan; batez ere, nerabeengan.

Suizidioa jadanik bigarren heriotza-kausa da 15etik 29 urtera bitarteko gazteen multzoan.

Estatu-mailan, suizidio-kopurua bikoiztu egin da 15 urte baino gutxiagokoengan.

ANAR fundazioak % 145 dei gehiago artatu ditu suizidio-ideiak dituzten edo suizidio-saioak egin dituzten adingabeenak, eta % 180 autolesio gehiago, aurreko bi urteetakoekin alderatuta.

Badirudi arrisku-faktoreetako batzuk direla emetasuna, depresio-sintomak izatea, COVID-19aren eragin handiagoaren pean egotea eta sare sozialen kontsumoa. Nabarmena da, bestetik, errezetarik gabeko medikamentuen bitartezko saio autolitikoen gorakada, bai eta autolesioena eta beste arrisku-jokabide batzuen ere.

Frogatu da beren buruaz beste egiteraino iritsitako pertsonak eta hurbileko suizidio batengatiko dolualdian daudenak direla Oinarrizko Osasun Laguntzako zerbitzuetara gehiago jo ohi edo jo izan ohi dutenak osasun mentaleko baliabide espezializatuetara baino.

Psikiatriaren eta pediatriaren alorretako osasungintzako profesionalak eta gaixoen elkartek alerta jo dute, ohartaraztearren haur- eta gazte-populazioan osasun mentaleko problemek eta suizidio-pentsamendu eta -jokaerek izan duten kasu-gorakada larriaz eta neurriak hartzearen premia gorriaz.

Azaldutako guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Osasun Mentalerako aurrekontuaren gorakada nabarmena lor dezan.

2. Estrategia berezi eta berritzaile bat ezar dezan haur eta gazteen osasun mentaleko problemei heltzeko eta horiek artatzeko. Horretarako, nahitaez jo beharra dago Oinarrizko Osasun

Laguntzara, osasun mentaleko zerbitzu espezializatuak zama gabetzeko.

3. Oinarrizko Osasun Laguntza sendotzearen horni dezan psikologiako zerbitzu bereziz, eragin-kortasuna frogatu baitute osasun mentaleko problemen kasu arin eta moderatuen % 70en.

4. Ziurta dezan zerbitzuak osasungintzako profesionalez hornituta egotea, psikiatriako eta psikologiako espezialitateak barne, egungo eskari guztiari erantzuteko.

5. Osasun Departamentutik bultza dezan Nafarroako Foru Komunitate osoan sare-lana egitea baliabide komunitario ezberdinekin: Oinarrizko Osasun Laguntzako osasungintza-langileekin, osasun mentaleko zentroetako osasungintza-langileekin, gizarte-zerbitzuekin, ikastetxeekin, gizarte-erakundeekin eta abarrekin.

6. Berritze-lana egin dezan, haur eta gazteen-tzako hurbileko baliabide berariazkoak sortuz, irisgarritasun handiagoa eskainiko dutenak, bai eta hurbilagoz ere haien eskaera, zalantza, beldur, antsietate, desorientazio eta abarretara.

7. Osasun-etxe guztietan prestakuntza-programak abiaraz ditzan, arreta pediatrikoa sendotzeaz gain.

8. Ikastetxe guztietan prestakuntza-programak ezar ditzan, irakasle, orientatzaile eta populazio-sektore hau artatzen duten gainerako profesionalen zuzendutakoak.

9. Osasun mentaleko problematika eta laguntza-baliabide eskuragarriak ikusarazteko eta horietaz sentsibilizatzeko kanpainak taxutu eta jendea-enganatu ditzan.

10. Informazio-kanpainak egin ditzan, gurasoak kontzientziazte aldera sare sozialek haur eta gazteengan duten eraginaz eta horiek internet eta teknologiekin egiten duten erabileraz helduak jakituen izatearen beharraz.

11. Ohartaraztea pertsonen osasun mentalak beharrezkoa duela bizitzako lehen urteetan jorratuko den esku-hartze bat, garai horretan tankerazten baita haurren oinarri emozionala.

Iruñean, 2022ko otsailaren 22an

Foru Parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernuak premiatzen da Erromako Estatutuaren aldaketa bultzatzeko politika bat azter dezan, ekoizidiora nazioarteko delitu gisa aitortzeko bide modura.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernuak premiatzen baita Erromako Estatutuaren aldaketa bultzatzeko politika bat azter dezan, ekoizidiora nazioarteko delitu gisa aitortzeko bide modura.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, 2022ko martxoaren 3ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nazioarteko esparruan ingurumen zuzenbidea lehenbiziko aldiz ikusi zen Giza Inguruneari buruzko Nazio Batuen Konferentzian, zeina ezagunagoa den Stockholmeko Konferentzia (1972) izenarekin. Bertan, ingurumen-gaiek nazioartean arreta erakarri zuten. Ingurumena endekatzeari eta mugaz gaindiko kutsadurari buruzko kezkek iraultza handiak izan ziren, erakusten zutelako kutsadurak ez duela aitortzen muga geografiko edo politikorik, eta bere sorburutik haragoko herrialdeak, eskualdeak eta herriak jotzen dituela. Konferentzian gobernuak egin zitzaizkien ahalegi-

nak bidera zitzaten ingurumena gordetzera, azpimarra jarritz sistema juridiko eraginkor bat ezartzeak daukan garrantzian, lagunduko duena ingurumena mehatxatzen duten joerak alderantzikatzen eta etorkizuneko belaunaldiei ingurune egokia izateko eskubidea bermatzen.

Era berean, Montrealgo Protokoloa (1987), ozono-geruza agortzen duten substantziei buruzkoa, agian gai espezifiko bat zuen nazioarteko lehen tresna izan zen. Haren helburua zen ozono-geruza babestea, hura narriatzen duten substantzien ekoizpena kontrolatuz. Aipatu protokoloak 1989ko urtarrilaren 1ean hartu zuen indarra, eta bost aldiz berrikusi zen: 1990ean Londresen, 1992an Kopenhagen, 1995ean Vienan, 1997an Montrealen eta 1999an Beijingen. Nahiz eta protokoloaren izaera batez ere teknikoa izan, ahalmen lotesle handieneko tresnetako bat dela jo daiteke, hain zuzen ere haren manuen zehaztasunagatik.

Beste alde batetik, 1992an egindako Lurraren goi-bileran (Rioko Konferentzia) batez ere nolokotasun politikoa gailendu zen. Bertan ingurunearen babesa eta baliabide naturalen administrazioa garapen-politiketan integratzearen garrantzia aitortu zen. Ideia hori hartua zen Brundtland bartzordeak “garapen jasangarria” dela-eta emandako definizioetik, honela deskribatzen baitzen: “egungo premiak aseko dituen garapena, etorkizuneko belaunaldiek beren beharrei erantzuteko izan beharreko gaitasuna arriskuan jarri gabe”. Joera hori herrialde gehienengatik ingurumen-doktrinan sartu da, nahiz eta Rioko Konferentziak, berez, ez zuen araurik sortu. 1997an Kyotoko protokoloa sinatzea izan zen ingurumena babesteko arauak eta lotura juridikoak sortze aldera nazioartean bideratutako hurrengo bilkura.

SEO/Birdlife-k 2020ko martxoan “Espainian eta Portugalen ingurumenaren aurkako delituetan ezarritako zehapen penalen disuasio-izaera, eraginkortasuna eta proportzionaltasuna, eta haiek 2008/99/EE Zuzentarauari egokitzea, ingurumena zuzenbide penalaren bidez babestearen gainera” izeneko azterlana argitaratu zuen; horren arabera, azken urteotan ingurumenaren aurkako delituen gorakada orokortu egin da. Aipatu azgertlanean honako hauek atzematen ditu SEO/Birdlife-k:

- Azken 10 urteetan zehar zehapen-sistema penalak hobera jo du (batez ere 2012tik aurrera), bai erasoak aurkitzeko fasean bai haiek judizializatzeko eta kondenatzekoan ere.

- Hobetze hori bereziki nabaritu da floraren eta faunaren aurkako eta etxeko animalien aurkako delituen kondenetan. 2015eko aldaketak, floraren

eta faunaren aurkako delituetako jokabide zuzentzeak zehatzen dituenak, handitu eta zehaztu egiten du animalien aurkako tratu txarren kontzeptua, bai eta portaera horiek jazartzearen ardura duten erakundeen sentiberatasun soziala ere, bereziki tratu txarrei dagokienez.

- Hala eta guztiz ere, joera bat atzematen da, askatasun-gabetze zigorra ez jartzekoa edo, bestela, bi urtetik beheitikoa ezartzekoa. Muga hori gaintzen bada –baliabide naturalen aurkako delituetan bakarrik gertatzen da–, ohikoa da indultu partziala ematea, bi urteko edo beheitiko zenbateraino, horrela erraztuz epaileak betearazpena etetearen aukera.

Horiek horrela, mota horretako delituek, nahiz eta deskribatuta dauden, eta zigor gero eta disuasorioagoak dituzten (nahiz eta oraindik urruti egon egindako kaltearen proportzioan ezarri beharko lirakekeenetik), inpunitate-indize handia izaten dute; eta, gainera, haien ikerketa eta judizializazio oso konplexua da.

Teknika berri bat behar da ingurumenaren aurkako delituak erakitzeke halako moduan non benetan bermatuko duten babestutako subjektuaren babesa eta hura doluz edo erruz kaltetzen duen hori zigortzea.

Herrialde aurreratuagoetan ingurumena modu eraginkorrean babestea bilatu dute, lege penaltan “ekoizidiotik” figura ezarri dute, non adierazten den hori dela “edozein egintza ez-zilegi edo arbitrario (erruzkoa), burutzen denean jakitun izanik probabilitate handia dagoela ingurumenari kalte larriak egiteko, hedatsuak eta iraunkorrak direnak”.

Herrialdeek gero eta babes handiagoa eskaintzen diote ekoizidiotik nazioarteko delitu bihurtzeko ekimenari: joan den abenduan Vanuatu eta Maldibak irla-estatu txikiek eskatu zuten Nazioarteko Gorte Penalaren biltzarrean ekoizidiotik delitua seriotasunez kontuan har dadila. Bertan adierazi zen lege-esparrua eguneratu behar dela, tresna boteretsua izan dadin naturaren aurkako delituak (ekoizidiotik) prebenitzeko, ekoizidiotik Erromako Estatutuan sartuz.

Gaur egun, Erromako Estatutua da Nazioarteko Zigor Auzitegia eratzen duen tresna. Hamahiru artal eta 128 artikulua ditu. 1. artikulua honela dio: “Auzitegiak ahalmena du bere jurisdikzioa erabiltzeko pertsonen gainean nazioarteko garrantzia duten krimen larrienei dagokienez, Estatutu honi jarraituz, eta jurisdikzio penal nazionalen osagarri izan da. Auzitegiaren eskumena eta funtzionamendua Estatutu honen xedapenek arautuko dituzte”.

Halatan, Nazioarteko Zigor Auzitegia nazioarteko lehen auzitegia dugu izaera iraunkorrekina ardura daukana gizateriaren aurkako krimenen, genozidioaren eta gerra-krimenen erantzuleak epaitzeko; bai eta, Erromako Estatutua Berrikusteko Konferentziaren ondotik (Kampala, 2010), erasoaren krimenaren kasuan ere, Espainiak bezala berrikusketa hori berretsi duten herrialdeen kasuan.

Bokazio unibertsaleko zigor jurisdikzio hori urrats garrantzitsua da inpunitatearen aurkako borrokan. Bermatu egiten ditu, adibidez, kultura juridikoen arteko oreka, Auzitegiaren hizkuntzak, Estatuen papera eta Auzitegiaren independentzia, fiskalaren botereak eta defentsaren eskubideak. Bere eskumena mugatuko da nazioartean garrantzia duten krimen larrienetara, esate baterako:

- Genozidio-krimena.
- Gizateriaren aurkako krimenak
- Gerra-krimenak
- Eraso-krimena.

Asmoa da ekozidioaren figura krimen larrietako bosgarrena izatea eta Nazioarteko Zigor Auzitegiaren jurisdikziokoa izatea. Ingurumenaren aurkako krimenek izanen lukete gerra-krimenek edo gizakien aurkako krimenek duten kategoria bera,

eta Hagako Nazioarteko Zigor Auzitegiak prozesatuak izaten ahal dira.

Ekimena babestu duten herrialdeak dira, besteak beste, honako hauek: Txile, Eskozia, Erresuma Batua, Bangladesh, Kanada eta Espainia. Herrialde horiek adierazi dute ekozidioa nazioarteko krimen gisa aitortua dela Nazioarteko Zigor Auzitegiaren Erromako Estatutuari jarraikiz, Nazioarteko Zigor Auzitegiaren Erromako Estatutuarekiko zuzenketa bat negoziatzea ekozidio-krimena ezartzeko eta nazio zein nazioarteko mailan ekozidioaren gaineko legedia sortzeko aukera. Hala ere, Espainiak oraindik ez ditu bere legeak aldatu ekozidioaren delitua bere legedi penalean sartzeko.

Ildo horretatik, eta azaldutako guztia aintzat harturik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuari premiazten du Erromako Estatutuaren aldaketa bultzatzeko politika bat azter dezan, ekozidioa nazioarteko delitu gisa aitortzeko bide modura eta, halaber, balora dezan xede horrekin bat datozen gure barne zuzenbidearen aldaketa prozesalak eta penalak egiteko aukera.

Iruñean, 2022ko otsailaren 24an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Parlamentuari 2022ko Irisgarritasun Plan Operatiboa igor diezaion.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Parlamentuari 2022ko Irisgarritasun Plan Operatiboa igor diezaion.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakariak, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako presako mozio hau aurkeztu du, Lehendakariak, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean eztabaidatzeko:

Irisgarritasun Unibertsalari buruzko ekainaren 14ko 12/2018 Foru Legeak bere lehen xedapen gehigarrian ezartzen zuen Nafarroako Gobernuak irisgarritasun unibertsalaren arloko jarduketan plan bat Nafarroako Parlamentuari aurkezteko betebeharra, non finkatuko baitira pertsona guztientzako irisgarritasun unibertsalerako eta pertsona ororentzako diseinurako eskubidearen inguruan egun dauden gabeziak ahal den eperik laburrenean zuzentzeko behar diren neurriak, egutegia eta diru-zenbatekoak.

Plan hori ez zen prestatu 2018an, ez 2019an ez eta 2020an ere, eta are gutxiago Nafarroako Parlamentuan aurkeztu.

2021ean, Parlamentuak xede horren alde egindako presioaren ondotik, Lehendakariak Departamentuak Irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboaren prestaketa koordinatu zuen. Talde parlamentario baten eskariz Batzordean aurkeztu zen, baina edukiak ez du betetzen aipatu xedapen gehigarrian xedatzen dena.

2021eko Plan Operatiboaren ebaluazioaren ondotik Nafarroako Gobernuak iragarri du 2022rako plan berri bat prestatuko dela, antza denez izaera estrategikorik berriz ere edukiko ez duena, ez eta irisgarritasunaren arloko gabeziak zuzentzeko zenbateko ekonomikoen egutegi finantik ere.

Gainera, aipatu ebaluazioan gabezia guztiz garrantzitsuak atzeman dira departamentuetan, Irisgarritasunari buruzko Foru Legeak esan nahi duena ezagutzeari dagozkionak, bai eta, kasu askotan, hura betetzeko borondateari ere dagozkionak.

Horregatik, beharrezkotzat jotzen da Parlamentuak esku hartu ahal izatea, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoa beterik, 2022ko Plan Operatibo horretan egon ahal diren gabeziak osatze aldera.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Nafarroako Parlamentuari 2022ko Irisgarritasun Plan Operatiboa igor diezaion, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen XIII. tituluaren II. kapituluaren xedatuari jarraikiz izapidetua izan dadin.

Iruñean, 2022ko otsailaren 24an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka borrokatzeko 2021-2026 aldirako Plana Nafarroako Parlamentuari igor diezaion, honek haren gaineko jarrera azal dezan.

MIGRAZIO POLITIKETAKO ETA JUSTIZIAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordean izapidetu dadin EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka borrokatzeko 2021-2026 aldirako Plana

Nafarroako Parlamentuari igor diezaion, honek haren gaineko jarrera azal dezan. Mozioa 2022ko otsailaren 15eko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-22/MOC-00018).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da bertan behera utz dezan Luz Verde alderdi kanabikoa legez kanpo uzteko ekimena.

LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak, 2022ko martxoaren 1ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da bertan behera utz dezan Luz Verde alderdi kanabikoa legez kanpo uzteko ekimena".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak bere babes guztia ematen die pluraltasun politikoari eta parte-hartze politikorako eskubide oinarrikoarekiko konpromisoari, eta Espainiako Gobernua premiatzen du bertan behera utz dezan Luz Verde alderdi kanabikoa legez kanpo uzteko ekimena".

Iruñean, 2022ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Emanzipa programaren balizko onuradunen adin-tartea 35era urtera bitartekoa izateraino handitzera legegintzaldia bukatu aitzin.

LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak, 2022ko martxoaren 1ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da bertan behera utz dezan Luz Verde alderdi kanabikoa legez kanpo uzteko ekimena”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Emanzipa programaren balizko onuradunen adin-tartea 35era urtera bitartekoa izateraino handitzera legegintzaldia bukatu aitzin”.

Iruñean, 2022ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko otsailaren 28an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin, bere fatxada otsailaren 28an kolore arrosaz argiztatuz.

2. Nafarroako Parlamentuak funtsezko deritzo ikerketa sustatzeari.

3. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du FEDER eta GERNaren eskaerekin; hots, beharrezkoa dela berdintasun-baldintzetan bermatzea beharrezkoak diren artatze-zerbitzuetarako irispi-

dea, hala nola arreta goiztiarra, errehabilitazioa, logopedia eta arreta psikologikoa.

4. Nafarroako Parlamentuak gizarte-zerbitzuen indartzearen aldeko apustua egiten du; batez ere, desgaitasunaren eta mendekotasunaren arretarekin zerikusia dutenenaren aldekoa.

5. Nafarroako Parlamentuak jotzen du ezen gaixotasun arraroak dituzten adingabeek erabateko eta beren premia berezietara doituriko irispidea eduki behar dutela hezkuntzara, eta gaixotasun arraroak dituzten pertsonen laneratzea faboratu beharra dagoela”. (10-22/DEC-00010).

Iruñean, 2022ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Errusiaren eraso militarra salatzen baitu, eta eskatzen baitu berehala buka dadila eta indar militarrek Ukrainatik atera daitezela.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko otsailaren 28an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak Errusiaren eraso militarra salatzen du, eta eskatzen du berehala buka dadila eta indar militarrek Ukrainatik atera daitezela.

2. Nafarroako Parlamentuak borrokak berehala buka daitezela exijitzen du, biktima-kopurua handitu aurretik, eta tropak itzul daitezela nazioarteak Errusiako Federazio gisa aitortutako lurraldera.

3. Nafarroako Parlamentuak eragile guztiei dei egiten die Errusiak hasitako gatazka belikorako konponbideak bila ditzaten.

4. Nafarroako Parlamentuak berresten du desadostasunak konpontzeko esparrua Nazio Batuen Gutuna dela, bakearen eta diplomaziaren bideak erabiliz.

5. Nafarroako Parlamentuak Europako erakundeak premiatzen ditu arta ditzaten Ukrainatik lekualdatu eta Europako beste herrialde batzuetan babesa bilatzen ari diren pertsonak.

6. Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasun erabatekoa adierazten die Ukrainako Gobernuari eta herriari eta, halaber, Errusian gerraren aurkako manifestazioetan parte harturik jazarpen polizial eta militarra pairatzen ari diren pertsonari.

7. Nafarroako Parlamentuak elkarretaratze baterako dei egiten du, Nafarroako Foru Komunitateko erakunde nagusiekin batera: 2022ko otsailaren 28an, astelehenarekin, 12:00etan eginen da, Iruñeko Sarasate pasealekuan, Ukrainako egoera salatzeko eta adierazpen honetan onetsitako puntuak babesteko”. (10-22/DEC-00011).

Iruñean, 2022ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi, baliozkotu eta aldeztu egiten baitu 45. EUCOCoren amai-adierazpena, joan den abenduaren 11n Las Palmas Kanaria Handikoan onetsia.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko otsailaren 28an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak berretsi, baliozkotu eta aldeztu egiten du 45. EUCOCoren amai-adierazpena, joan den abenduaren 11n Las Palmas Kanaria Handikoan onetsia”. (10-22/DEC-00012).

Iruñean, 2022ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, kolektibo zaurgarriak babeste aldera Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak eginiko ekintzei buruzkoa.**BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkeztutako galdera, kolektibo zaurgarriak babeste aldera Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak eginiko ekintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Blanca Regúlez Álvarez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako

ko eta Justiziako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Joan den otsailaren 4an Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak aurkeztu zuen Nafarroako Gorrotozko Delituei buruzko 2016-2020 aldirako txostena. Departamentu horrek elkarlanean prestatu du, Euskal Herriko Unibertsitateko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Unesco Katedrarekin batera. Txostenak ondorioztatzen duenez, Nafarroan ezagutzen diren gorrotozko delituak burutzen dira batez ere kolektibo etnikoen aurka, era zabalean ulertuta (arrazak, etnia, jatorri nazionala eta are erlijio sinesmenak eta ideologia ere), eta taldeen aurka-ko eraso gehienak arrazistak dira.

Horregatik guztiagatik, honako ahozko galdera hau egiten diogu Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako kontseilariari:

Zer ekintza edo tresna aurreikusten ditu zure departamentuak, kolektibo zaurgarri horiek babes-
teko?

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Foru parlamentaria: Blanca Regúlez Álvarez

Galdera, Nafarroako Gobernuak babes ofizialeko etxebizitzak erosteari buruzkoa.

MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak babes ofizialeko etxebizitzak erosteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariari, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nola baliatu du Nafarroako Gobernuak bere lehenetasunezko eskubidea, babes ofizialeko etxebizitzak erostekoa, eta zer eragin izan du Etxebizitza Sozialeko Funtsean?

Iruñean, 2022ko otsailaren 22an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

Galdera, Nafarroako Gobernuaren finantzaketa jasangarrirako estrategiari buruzkoa.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren finantzaketa jasangarrirako strategiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan da gaur egun Nafarroako Gobernuaren finantzaketa jasangarrirako estrategia, eta zein izan daitezke eginkizun dauden hurrengo urratsak?

Iruñean, 2022ko otsailaren 22an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Gárate

Galdera, Errusiaren eta Ukrainiaren arteko gerrak Nafarroako enpresetan izanen duen eraginari eta haren ondorio ekonomikoei buruzkoa.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, Errusiaren eta Ukrainiaren arteko gerrak Nafarroako enpresetan izanen duen eraginari eta haren ondorio ekonomikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Garapen Ekonomikorako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak baloratu al du zer eragin izanen duen Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerrak Nafarroako enpresetan, eta zer ondorio ekarriko duen gure ekonomiarako?

Iruñean, 2022ko otsailaren 24an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Gárate

Galdera, Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzen duen maiatzaren 10eko 8/2021 Foru Legeak ukitzen dituen abeltzaintzako instalazioen eskariei buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzen duen maiatzaren 10eko 8/2021 Foru Legeak ukitzen dituen abeltzaintzako instalazioen eskariei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkeztu dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

1.250 AzLU baino gehiago dituzten behi-azienakoi abeltzaintzarako abeltzaintzabaimenentarako zenbat eskaera, 2021eko maiatzaren 20a baino lehen aurkeztuak, geratu ziren beren izapidetzean etenik, maiatzaren 10eko 8/2021 Foru Legea aplikatzearen ondorioz?

Nafarroako zer herritan, eta nortzuk izan ziren eskaera horien sustatzaileak?

Iruñean, 2022ko otsailaren 22an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria hautatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 28an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabaki loteslea hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen besteak beste:

Kontuen Ganberako lehendakariaren agintaldia laster amaituko denez, Erregelamenduko 209. eta 210. artikuluetan eta Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legean xedatutakoarekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria izendatzeko prozedura hastea.

2. Kontuen Ganberari buruzko Foru Legeko 25.3 artikuluan Ganberako lehendakaria izendatzeko ezarritako hautatze-prozedurako bozketaren batean berdinketarik gertatuz gero, errepikatu egingen da bozketa; eta, berdinketak iraunez gero, bozketa eten egingen da lehendakariak ezartzen duen denboraz. Denbora hori iragandakoan, hiru-

garren bozketa bat egingen da; eta, azken bozketa horretan berriro ere berdinketarik egonez gero, zozketa eginez ebatziko da.

3. Ezartzea talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak Kontuen Ganberako lehendakaritzarako hautagaitzak aurkezteko epea 2022ko martxoaren 10eko 17:30ean bukatuko dela. Hautagaiak Erregelamenduko 210. artikuluan xedatutakoari jarraikiz aurkeztuko dira.

4. Gogoraraztea proposatutako hautagaiak 19/1984 Foru Legeko 25. artikuluko 2. eta 5. apartatuetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela frogatu beharko dutela.

5. Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2022ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

